

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 203/2013 FORU DEKRETUA,
abenduaren 23koa. Honen bidez Sozietateen gaineko
Zergari buruzko Erregelamendua onesten da
(BAO Abenduaren 31ekoa)**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauak errotik berritu du zerga horren peko pertsona juridikoek eta gainerako entitateek lortutako errenten zergapetzea dela-eta Bizkaiko Lurralde Historikoan indarrean dagoen araudia, bai ikuspuntu sistematikoari dagokionez, bai tributua arauketa substantiboari dagokionez.

Foru arau horretako xedapen indargabetzaile bakarreko 4. zenbakian xedatzen denez, foru arau hori erregelamenduz garatu artean indarrean jarraituko dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Araua garatzeko emandako erregelamenduzko xedapenek -Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen 1997ko ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretua, batez ere-, foru arau berriari xedatutakoarekin bat datozen neurrian.

Foru arauko bertako hainbat ataletan arau hori erregelamendu bidez garatuko dela aipatzen da, bai eskabide batzuen eta Administrazioa aurretik lotesteko prozeduren prozedurazko zenbait alderdiri dagokionez, bai arauketan jasotako kontzeptu jakin batzuen zehaztasunari dagokionez.

Gainera, indargabetutako arautegiaren eta arauketa berriaren arteko trantsizioa egiteko beharrezkoa da zergadunak zenbait aukera egin ditzatela edo zenbait eskabide izapidetu ditzatela; beraz, beharrezkoa da al bait arinen erregelamendu bidez garatzea Zergari buruzko Foru Arau berria.

Era berean, nabarmendu behar da Sozietateen gaineko Zergaren arauketan zenbait alderdi oso berritzaile jasotzen direla; bada, alderdiok osorik aplikatu ahal izateko beharrezkoa da haien formulazioa gehiago zehaztea edo Zergari buruzko Foru Arauan aipatzen diren erregelamendu-arauak garatzea.

Foru dekretu honek, beraz, erregelamendu bidez garatu nahi du Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua, eta, horretarako, arau horren erregelamendua onetsiko du, zeinak zerga horren arauketa osatuko duen eta beharrezko segurtasun juridikoa emango dien zergadunei, arautegi berria aplikatu behar duten lehenengo zergaldiko lehenengo unetik bertatik aurreikusi ahal izateko egiten dituzten jarduketek izango dituzten zerga-ondorioak.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2013ko abenduaren 23ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau .

XEDATZEN DA:

Artikulu bakarra. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onestea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten da, eta foru dekretu honi eranskin legez batzen zaio.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. 2005eko ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuaren aldaketa; dekretu horrek zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretzako proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatu zituen.

Beste xedapen gehigarri bat gehituko zaio 2005eko ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuari, zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretzako proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatu zituenari.

«Hirugarren xedapen gehigarria. Tributazioko aurretzako proposamen kalifikatuak.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren kasuetan, Zerga Administrazioak tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua izapidetuko du, xedapen gehigarri horretan ezarritako arauekin bat.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarriko 1. zerbakian aipatzen diren eragiketarik egiten dituzten zergadunek dute tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua aurkezteko legitimazioa.

Sozietateen gaineko Zergan zerga-baterakuntzaren araubide berezian tributatzen duten zergadunen kasuan, entitate nagusiak dauka tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua aurkezteko legitimazioa.

Zerbaki honetan ezartzen denaren ondorioetarako, foru dekretu honetako 8. artikuluko 3. zerbakian ezartzen dena aplikatuko da.

3. Tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua aurkezteko epea haiek ondorioak sortu behar dituzten zergaldia amaitu eta hurrengo hiru hilabeteak igarotakoan amaituko da.

Nolanahi ere, Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 5. zerbakian jasotzen den kasuan, tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua aurkezteko epea luzeagoa izango da; izan ere, ekintzailerik sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia zuzkitzeko erabili den kontabilitateko emaitza positiboari dagokion ekitaldiko urteko kontuak onartzeko ezarritako dagoen epean amaitzen den arte luzatuko da.

4. Tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua aurkezteko idatzian Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko hirugarren xedapen gehigarrian kasu bakoitzerako zehazten diren kontuak jaso behar dira, eta idazki horri xedapen horretan galdatzen diren agiriak erantsi behar zaizkio; halaber jaso behar ditu foru dekretu honetako 9. artikuluko 2. zerbakian aipatzen diren alderdiak, esanguratsua baldin badira.

5. Tributazioko aurretzako proposamen kalifikatuak ez badituzte betetzen xedapen gehigarri honetako 2., 3. eta 4. zerbakietan ezartzen diren baldintzak, besterik gabe artxibatuko dira.

6. Tributazioko aurretzako proposamen kalifikatuak izapidetzean foru dekretu honetako 10. artikuluko 1. zerbakian ezarritako arauak bete behar dira.

Zerga Doktrinaren Zerbitsuak txostena egingo dio Ogasuneko zuzendari nagusiari, non tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua ebazteko garrantzitsuak diren egiteko eta zuzenbidezko elementuak aztertuko dituen.

7. Ogasuneko zuzendari nagusiak modu arrazoituan ebatzi behar du zergadunak aurkeztutako tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua onestea edo ezestea.

Tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua aurkeztu eta hiru hilabetean ebazpen espresua eman ez bada, proposamena ezetsizat joko da.

8. Manu batzuen kasuan, manuok aplikatzeko beharrezkoa bada tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua onartua izatea eta hura aplikatzeko baimena izatea, zergadunak ezin izango ditu manuok bere autolikidazioan aplikatu harik eta proposamen hori onesten duen jakinarazpena jaso ez duen arte.

9. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 48. eta 49. artikuluetan ezarritakoa gorabehera, zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen den egunean ebatzi gabe badago zergadunak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 5. zerbakian jasotzen denerako aurkeztutako tributazioko aurretzako proposamen kalifikatua, zergadunak hilabete epea izango du -bere proposamena onesten duen Ogasuneko zuzendari nagusiaren ebazpenaren jakinarazpenaren egunetik zenbatuta- Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazio osagarria aurkezteko, emaitza aplikatzeari dagokionez Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluan jasotzen den zuzenketarako aukera erabili ahal izateko. Kasu horretan, aukera hori zerga aitortzeko borondatezko epearen barruan erabiltzen ari dela ulertuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluko horretan ezartzen diren ondorioetarako.» .

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arau- derogazioa.

1. Foru dekretu hau indarrean jartzen denean derogatu egingo da 1997ko ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretua (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuena), lehenengo, zortzigarren, hamargarren eta hamalagarren xedapen iragankorrak izan ezik; izan ere, xedapenok ondorioak sortzen jarraituko dute haiek aplikatu beharreko egoeretan.
2. Halaber, derogatu egingo dira foru dekretu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko mailako xedapen guztiak, hauek izan ezik: Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 3. zenbakian ezartzen denaren arabera berariaz indarrean daudela adierazten direnak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

Bigarrena. Garapena.

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

ERANSKINA SOZietATEEN GAINeko ZERGARI BURUZKO ERREGELAMENDUA

I. TITULUA ZERGADUNA

1. artikulua. Mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak.

Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluko 4. zenbakian jasotzen diren kasuetan, higiezinaren sustapeneko jardueran aintzat hartu behar den urteko batez besteko plantilla higiezinak eraiki eta sustatzen diren denboraldian dagoena izango da, eta plantilla hori ondoren ez mantentzeak ez du eragingo entitateak sustatutako aktibo korranteak besterentzearen ondoriozko errentak enpresa-jarduerak egitetik datozen errentatzat hartzea.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren entitateak, ondoren, errentan emateko edo higiezinok erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzeko erabiltzen baditu berak sustatutako higiezin horiek, orduan bai mantendu beharko du Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluko 4. zenbakian galdatzen zaion batez besteko plantilla hori, baldin eta nahi badu higiezinok laga edo ustiatzetik datorren errenta enpresa-jarduerak egitetik datorren errentatzat hartzea.

2. artikulua. Ondare-sozietateak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 1. zenbakiko b) letran jasotzen denerako, eta horretarako bakarrik, letra horretan zehazten diren entitateak ez badaude Bizkaiko Lurralde Historikoko arautegiaren menpe, entitateok ondare-sozietateak direla ulertuko da, baldin eta bete egiten badituzte entitate bat ondare-sozietatetzat hartzeko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluan ezartzen diren baldintzak.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 2. zenbakiko b) letran aipatzen diren mozkin banatu gabeak ekonomia-jarduerak egitetik datozen zehazteko, mozkin horiek sortu ziren zergaldian indarrean zegoen araudia hartuko da aintzat.
3. Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 2. zenbakiko c) letran jasotzen diren kasuetan, higiezinaren sustapeneko jardueran aintzat hartu behar den urteko batez besteko plantilla higiezinak eraiki eta sustatzen diren denboraldian dagoena izango da, eta plantilla hori ondoren ez mantentzeak ez du eragingo entitateak sustatutako aktibo korrontekak besterentzearen ondoriozko errentak enpresa-jarduerak egitetik datozen errentatzat hartzea.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren entitateak, ondoren, errentan emateko edo higiezinok erabiltzeko edo gozatzeko eskubideak edo ahalmenak eratzeko erabiltzen baditu berak sustatutako higiezin horiek, orduan bai mantendu beharko du Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 2. zenbakiko c) letran galdatzen zaion batez besteko plantilla hori, baldin eta nahi badu higiezinok laga edo ustiatzetik datorren errenta enpresa-jarduerak egitetik datorren errentatzat hartzea.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 1. zenbakiko c) letrako bigarren marratxoan eta 2. zenbakiko c) letran ezarritakoa gorabehera, entitateen aktibo korrontekak diren ondasun higiezinak ez dira ekonomia-jarduerara ez-afektatutako elementutzat hartuko, baldin eta entitate horrek baldintza hauek betetzen baditu:
 - a) Entitatearen jarduera bakarra higiezinaren sustapena izatea eta entitateak egiaztatzea badituela ekonomia-jarduera horretan denboran zehar jarraituki jarduteko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak.
 - b) Entitatearen aktiboaren %85 edo gehiago higiezinaren sustapeneko jarduerara afektatuta egoteagatik aktibo korrontetzat hartzen diren ondasun higiezinak izatea.
 - c) Entitatearen sarreraren %85 edo gehiago entitateak sustatutako ondasun higiezinak eskualdatzetik etortzea.

Letra honetan zehaztutako sarrerak zenbatzerakoan ez dira kontuan hartuko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluan zehaztutakoaren arabera pertsona edo entitate lotutzat hartzen direnekin egindako eragiketetatik datozenak.

3. artikulua. Ondare-sozietateen betebeharrak formalak.

1. Ondare-sozietateek informazio hau jaso behar dute beren urteko kontuen memorian:
 - a) Entitateak ondare-sozietatea izan gabe tributatu duen zergaldietako erreserbei aplikatutako mozkinak.
 - b) Entitateak Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 66. artikuluan eta hurrengoetan arautzen den ondare-sozietateentzako araubide berezian tributatu zuen zergaldiei dagozkien erreserbei aplikatutako mozkinak edo entitateak Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluan ezarritakoaren arabera ondare-sozietate gisa tributatu zuen zergaldiei dagozkien erreserbei aplikatutako mozkinak.
 - c) Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak erreserben kargura banatu badira, zein erreserba aplikatu den zehaztu behar dute, hau da, aurreko a) eta b) letratan aipatutako bietatik zein aplikatu den mozkin motaren arabera.
2. Urteko memorian aipatu beharrekoak aurreko zenbakiko b) letran jasotzen diren erreserbak dauden bitartean aipatu behar dira, nahiz eta entitatea ez izan ondare-sozietatea hurrengo ekitaldi horietan.
3. Halaber, gastuak errenta-iturrien artean banatzeko egindako kalkuluei buruzko informazio xehakaturia agertu behar da memorian.

4. Artikulu honetan informazioa dela-eta ezarritako betebeharrak artikulu honetako 1. zenbakiko b) letran aipatutako erreserben titulartasuna duten hurrengo erakundeei ere galdatu ahal izango zaizkie.

II. TITULUA ZERGA-OINARRIA

I. KAPITULUA ZUZENKETAK GASTUEN ATALEAN

4. artikulua. Amortizazio-planak.

1. Zergadunek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote amortizazio-plan bat onesteko, erregelamendu honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin bat etorrira plan hori onetsi dezala, alegia. Eskabide horrek artikulu honetan ezarritako espezialitateak izan beharko ditu.
2. Eskabideak honako datuok izan beharko ditu:
 - a) Amortizazio-plan berezia ezarriko zaien ondare-elementuen deskripzioa. Halaber, elementuok zein jarduerara afektatuta dauden eta non kokatuta dauden aipatu beharko da.
 - b) Zer amortizazio-metodo proposatzen den agertu beharko da. Era berean, metodo horren arabera amortizazioak denboran nola banatzen diren esan beharko da.
 - c) Proposatutako amortizazio-metodoaren justifikazioa.
 - d) Ondare-elementuen eskuraketa-prezioa edo ekoizpen-kostua.
 - e) Ondare-elementuak zein egunetan jarri diren jarduteko moduan.

Ondare-elementuak oraindik eraikitzen ari badira, azaldu beharko da noizko aurreikusten den haiek jarduteko moduan jartzea.

3. Eskabidea ondare-elementuak eraikitzen ari diren bitartean aurkeztuko da, edo haiek jarduteko moduan jarri osteko hiru hilabeteetan.
4. Onartutako amortizazio-planak zergadunak eskatuta aldatu ahal izango dira, aurreko zenbakietan jasotako arauak betez. Eskabidea aurkeztu beharko da, hain zuzen ere, aldaketak ondorioak sortuko dituen zergaldiko lehenengo hiru hilabeteetan.
5. Onartutako amortizazio-plan horiek ezaugarri berberak dituzten beste ondare-elementu batzuei ere aplikatu ahal izango zaizkie, baldin eta elementuon amortizazioa amortizazio-plan hori onesteko erabakia hartu zenetik hiru urte igaro aurretik hasi bada, baina, betiere, onartutako amortizazio-metodoa ekarri zuten inguruabarrak -fisikoak, teknologikoak, juridikoak eta ekonomikoak- funtsean berdin mantentzen badira.

Hala aplikatuz gero, Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio, aplikazio horrek ondorioak sortuko dituen zergaldia amaitu aurretik.

6. Artikulu honetan ezartzen den prozedura kasu hauetan aplikatuko da: Zergari buruzko Foru Arauko 16.2.b) artikulua, 17.6 artikulua eta 20.3 artikulua; kasu bakoitzean, zergadunak justifikatu egin behar du manu horietako bakoitzean ezartzen diren baldintzak gertatu egiten direla.

5. artikulua. Finantza-errentamenduko kontratuak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko 3. zenbakian ezarritako aukera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio.
2. Jakinarazpena, hain zuzen, eskabideak ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu baino lehenago egin behar da.
3. Jakinarazpenean hauek jaso behar dira, gutxienez:
 - a) Finantza-errentamenduko kontratuaren xede den aktiboaren identifikazioa.
 - b) Aktiboaren eraikitze-epea benetan zein egunetan hasi eta amaituko den adieraztea.
 - c) Finantza-errentamenduko kontratuaren kuotaren zenbatekoak zehaztea, bai eta kuota horiek noiz ordainduko diren ere.
 - d) Adieraztea aktiboek betekizun tekniko bereziak nahiz diseinuko betekizun bereziak dituztela eta ez direla serieko ekoizpenekoak.

6. artikulua. Amortizatzeko askatasuna.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluko 1. zenbakiko e) eta f) letretan jasotzen den amortizatzeko askatasuna aplikatzea eskatzeko, erregelamendu honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorra jarraitu behar da, artikuluko honetan zehaztutako berezitasunekin.
2. Zergadunak Zerga Administrazioari aurkeztuko dion eskabideak honako datuok izango ditu:
 - a) Ondare-elementuen deskripzioa, bai eta zein jarduerara afektatuta dauden eta non kokatuta dauden ere.
 - b) Elementuok enpresaren jarduerak duen inpaktu kutsagarria murriztu eta zuzentzera afektatuta daudela justifikatzea, elementu horiek lehen aipatutako e) letran aipatuta daudenak badira.
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ofizialek lurzoru poluituak garbitzeko proiektu bat onesteko emandako ebazpena. Era berean, lehen aipatutako f) letran aipatutako elementuek proiektuarekin lotura zuzena dutela justifikatu behar da.

Horretarako, arlo horretan eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiko sailak txostena eman behar du, Zerga Administrazioak eskatuta.
 - d) Ondare-elementuen eskuraketa-prezioa edo ekoizpen-kostua.
 - e) Ondare-elementuak aurretik aipatutako e) eta f) letretan aipatuta dauden jardueretara zein egunetan afektatu diren adierazi beharko da.
3. Eskabidea aurkeztuko da edo ondare-elementuak eraikitzen ari diren bitartean, edo jarduera horietara afektatu osteko hiru hilabeteetan.

7. artikulua. Mikroenpresen baterako amortizazioa.

Zergadunak ibilgetu materialeko eta ukiezineko elementuen nahiz higiezinetakoko inbertsioen baterako amortizazioa egitea aukeratzen badu, kengarria den baterako amortizazioaren zenbatekoa amortizazio-metodo horren peko ondare-elementuen eskuraketa-prezioaren edo ekoizpen-kostuaren %10 baino txikiagoa den zergaldietan -elementuok aktibora sartu diren eguna edozein dela ere-, amortizatzeko geratzen den balio garbi fiskal osoari dagokion kenkaria egin ahal izango du zergadunak.

8. artikulua. Merkataritza-funts finantzarioa.

Zergari buruzko Foru Arauko 24. artikuluan ezartzen denerako, zergadunek jarraian adieraziko den informazioa aurkeztu behar dute, paragrafo horretan jasotakoa aplikatuz zerga-oinarria murrizten duten ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioekin batera. Hona hemen informazioa:

- a) Zuzenean partaidetutako entitateari dagokionez:
 - 1.a Identifikazioa eta partaidetza-portzentajea.
 - 2.a Entitatearen jardueren deskripzioa.
 - 3.a Partaidetzaren eskuratze-balioa eta -data, bai eta partaidetza horiei dagokien kontabilitateko ondare garbiaren balioa ere, urteko kontu homogeneizatuen bidez zehaztua.
 - 4.a Diferentzia badago partaidetzen eskuratze-prezioaren eta partaidetza horiei haiek eskuratu ziren datan egoztekoa zitzaizen kontabilitateko ondare garbiaren artean, justifikatu egin behar da zein irizpide erabiliko diren, batetik, diferentzia hori balioari eta denborari dagokionez homogeneizatzeko, eta, bestetik, diferentzia hori entitate partaidetuaren ondasun eta eskubideei egozteko.
- b) Erosi diren partaidetzei dagokien entitatea, hots, partaidetua, bere aldetik, beste entitate baten partaide bada, Zergari buruzko Foru Arauko 24. artikuluko 2. zenbakian ezartzen den bezala:
 - 1.a Zuzenean partaidetutako entitatearen identifikazioa, entitate horren gaineko partaidetza-portzentajea eta entitate horren jardueren deskripzioa.
 - 2.a Zeharka partaidetutako entitateen identifikazioa, entitate horien gaineko zeharkako partaidetza-portzentajea eta entitateon jardueren deskripzioa.
 - 3.a Partaidetzen eskuratze-balioa eta -data, bai eta partaidetza horiei dagokien kontabilitateko ondare garbiaren balioa ere. Balio hori, hain zuzen ere, urteko kontu bateratuak oinarri hartuta zehaztuko da; kontuok, bestalde, Merkataritzako Kodea eta hura garatzeko arauetan jasotzen diren irizpideak aplikatuz prestatuko dira, behar bezala homogeneizatuta.
 - 4.a Diferentzia badago partaidetzen eskuratze-prezioaren eta partaidetza horiei haiek eskuratu ziren datan egoztekoa zitzaizen kontabilitateko ondare garbiaren artean, ustifikatu egin behar da zein irizpide erabiliko diren, batetik, diferentzia hori balioari eta denborari dagokionez homogeneizatzeko, eta, bestetik, diferentzia hori entitate partaidetuaren ondasun eta eskubideei egozteko.
- c) Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren entitateen partaidetzak eskuratzeko egindako inbertsioaren zenbatekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko hogeita zazpigarren xedapen iragankorreko kenkariaren oinarrian sartutakoa.

8. bis artikulua. Finantza-gastuen kengarritasunari muga handiago bat aplikatzeko proposamena.

1. Zergari buruzko foru-arauaren 25.bis artikuluko 8. zenbakian jasotako kasuetan, erregelamendu honen 24. artikulutik 28. artikulura ezarritako arauen arabera egingo da artikuluko 1. zenbakian finantza-gastuen kengarritasunerako ezarritakoa barik beste muga handiago bat aplikatzeko prozedura, artikuluko honetan ezarritako berezitasunekin, eta muga berri hori oinarrituko da, hain zuzen, taldeak hirugarrenekin dituen finantza- gastu garbiek sozietate-taldearen mozkin operatiboan islatzen duten koefizientean.

2. Zergari buruzko foru-arauaren 25.bis artikuluko 1. zenbakian finantza-gastu garbien kengarritasunerako ezarri den mugaren orde handiagoko bat aplikatzea proposatu ahal izango diote zergapekoek Zerga Administrazioari, artikuluko 8. zenbakian ezartzen denarekin bat. Eskabide horrekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:
 - a) Entitatea parte den sozietate-taldearen deskripzioa.
 - b) Entitatearen urteko kontuak eta entitatea parte den sozietate-taldearen urteko kontu bateratuak.
 - c) Sozietate-taldeak hirugarrenekin dituen finantza-gastu garbien kalkulua eta xehetasuna.
 - d) Sozietate-taldearen mozkin operatiboaren kalkulua eta xehetasuna.
 - e) Zergari buruzko foru-arauaren 25.bis artikuluko 1. zenbakian finantza-gastu garbien kengarritasunerako ezarri den mugaren orde proposatzen den muga handiagoa eta haren justifikazioa; muga hori aplikatzeko oinarri diren inguruabar ekonomikoak azpimarratuko dira.

9. artikulua. Ingurumen alorreko jarduketegi dagozkien gastuen planak.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 26. artikuluko 2. zenbakian jasotako ingurumen alorreko jarduketegi dagozkien gastuen plan bat onar dezala eska diezaiokete zergadunek Zerga Administrazioari. Onarpen hori foru dekretu honetako 45. artikuluan ezartzen den prozedura orokorrari jarraituz eskatu behar da, artikuluko honetan xehatzen diren berezitasunekin.
4. Eskabideak honako datuok izan beharko ditu:
 - a) Zergadunak ingurumenaren gaineko kalteak prebenitu edo konpontzeko bere gain hartutako betebeharren edo konpromisoen deskripzioa.
 - b) Jarduketaren deskripzio teknikoa eta jarduketa egiteko beharrezko justifikazioa.
 - c) Ingurumen alorreko jarduketak dituen gastuen zenbateko balioetsia eta jarduketaren justifikazioa.
 - d) Ingurumen alorreko jarduketak dituen gastuen zenbateko balioetsia denboraren arabera egozteko irizpidea eta irizpide horren justifikazioa.
 - e) Ingurumen alorreko jarduketa hasteko data.
5. Eskabidea aurkeztu behar da, hain zuzen, ingurumen alorreko jarduketa egiteko betebeharra edo konpromisoa sortu osteko hiru hilabeteen barruan.
6. Ingurumen alorreko jarduketegi dagozkien gastuetarako onartu diren planak zergadunak eskatuta alda daitezke, betiere artikuluko honetan jasotzen diren arauak betez gero. Eskabidea aurkeztu behar da, hain zuzen, aldaketak ondorioak sortu behar dituen zergaldiko lehenengo hiru hilabeteen barruan.

10. artikulua. Kengarriak ez diren gastuak.

Zergari buruzko Foru Arauko 31. artikuluko 1. zenbakiko h) letran ezartzen denerako, manu horretan aipatzen diren gastuen zati bat baino ez bada eskudirutan ordaindu, eskudirutan ordaindu den zatiari dagokion zenbatekoa da kengarria ez den zenbatekoa.

II. KAPITULUA

ZUZENKETAK SARREREN ATALEAN

11. artikulua. Berrinbertsio plan bereziak.

1. Frogatzen bada ezen, inbertsioaren ezaugarri tekniko edo ekonomikoak direla eta, inbertsioak egiteko epe luzeagoa behar izango dela Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluan 1. zenbakian ezarritakoa baino, zergadunek Zerga Administrazioari eskatu ahal izango diote berrinbertsio plan bereziak onesteko.

Eskabidea foru dekretu honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorraren arabera egin eta izapidetuko da. Eskabide horrek artikuluan honen hurrengo zenbakietan zehaztutako espezialitateak izan beharko ditu.

2. Eskabideak honako datuok izan beharko ditu:
 - a) Eskuz aldatu diren edo eskuz aldatuko diren ondare-elementuen deskripzioa.
 - b) Eskualdaketa benetako zenbatekoa edo aurreikusitakoa.
 - c) Berrinbertsioaren xede izango diren ondare-elementuen deskripzioa.
 - d) Berrinbertsioa egiteko beharko duten denboraren deskripzioa.
 - e) Berrinbertsio plan berezia justifikatzen duten inguruabar ekonomikoen deskripzioa.
3. Berrinbertsio plan berezia aurkezteko honako epeok daude, kasuen arabera:
 - a) Aparteko mozkina eragiten duen eskualdaketa egiten den egunetik aurrerako sei hilabeteko epea.
 - b) Eskualdaketa egiteko aurreikusita dagoen egunaren aurreko sei hilabeteko epea.
 - c) Aurreratutako inbertsioa egin edo hasteko aurreikusita dagoen egunaren aurreko sei hilabeteko epea.

Aurreko b) letran ezarritako kasuan, sei hilabeteko epea dago eskualdaketa egiteko, berrinbertsio plan berezia onesten den egunean zenbatzen hasita. Azken kasuan, c) letrako kasuan, eskabidea aurkezteko den egunetik zenbatzen hasiko den sei hilabeteko epearen barruan egin beharko da berrinbertsioa.

4. Halaber, zergadunek berrinbertsio plan bereziak onestea eska dezakete, baldin eta gerora agertutako inguruabarrak direla-eta, behar bezala justifikatutakoak betiere, ezin badute prozesua Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 1. zenbakian zehazten den epean bete.

Kasu horietan, aurreko 2. zenbakian azaltzen diren datuak jasotzen dituen eskabide bat aurkeztu behar dute, eta zehaztu behar dute berrinbertsioaren zein zati egin duten dagoeneko eta zenbat denbora beharko duten berrinbertsioa burutzeko.

Zenbaki honetan aipatzen diren kasuetan, Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 1. zenbakian zehazten den epea amaitu baino lehen eskatu behar da berrinbertsio plan berezia.

5. Berrinbertsio plana ez bada betetzen -osorik edo zati batean-, zergadunak bere tributuegoera erregularizatu beharko du, Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluko 5. zenbakian ezartzen denarekin bat.

Erregularizazioa egiteko kontuan hartuko da zer proportzio dagoen proposatutako inbertsioaren eta benetan egindakoaren artean.

12. artikulua. Aparteko mozkinen berrinbertsiorako betebeharrak.

1. Zergadunek honako datuok jasotzeko behar dituzte urteko kontuen memorian:
 - a) Zergari buruzko Foru Arauko 36. artikuluan ezarritako araubidearen peko errentaren zenbatekoa.
 - b) Zerga-oinarrian sartu ez diren errentak zein zergalditan sartu ziren.
 - c) Berrinbertsioaren xede izan diren ondare-elementuen eta inbertsioa gauzatu den zergaldien deskripzioa.
2. Aipamen horiek egin behar dira, hain zuzen ere, harik eta inbertsioa osatu duten ondare-elementuak erabat amortizatu arte.

13. artikulua. Alderdi politikoaren ustiapen ekonomiko propioak, Zergatik salbuesita daudenak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 38. artikuluko 2. zenbakian ezartzen den salbuespenaz gozatzeko, alderdi politikoek eskabidea aurkeztu behar diote Zerga Administrazioari, salbuespenak ondorioak sortuko dituen zergaldia amaitu aurretik.

Eskabidearekin batera, salbuespena eskatzen duen alderdi politikoak honako hauek aurkeztu behar ditu: eraketa-eskrituraren eta estatutuen kopia soila, Barne Ministerioko alderdi politikoaren erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria eta, azkenik, memoria bat, non azaltzen eta justifikatzen den salbuespen-eskaerari lotutako ustiapen ekonomikoak alderdiaren jarduerarekin bat datoze.

Horri dagokionez, honako kasu hauetan ulertuko da ustiapen ekonomikoak alderdi politikoaren jarduerarekin bat datoze:

- a) Zuzenean edo zeharka laguntzen dutenean alderdiaren helburuak lortzen.
 - b) Alderdiak salbuespen honetatik gozatzeko ez duenean desitxuratu jardura bera egiten duten enpresen arteko lehia.
 - c) Ustiapen ekonomikoa baldintza berdinetan ematea pertsonen talde generikoei. Kasu honetan ulertuko da baldintza hori ez dela betetzen: alderdien sustatzaileak, afiliatuak, konpromisarioak eta haien zuzendaritza eta administrazio-organotako kideak nahiz horietako edozeinen ezkontideak, izatezko bikoteetako kideak (bikoteak izatezko bikoteei buruzko 2003ko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak jasotakoaren arabera erabatu badaude) edo laugarren mailara arteko ahaideak alderdiaren jardunaren hartzaile nagusiak badira edo haren zerbitzuak erabiltzeko baldintza bereziak badituzte.
2. Zerga Administrazioak modu arrazoituan ebatziko du eskatutako salbuespen bakoitza. Salbuespena ematen bada, beti bete behar dira Zergari buruzko Foru Arauko 12. artikuluko 2. zenbakian eta 38. artikuluetan nahiz artikuluko honetan ezartzen diren baldintzak eta betekizunak.

Zerga Administrazioak sei hilabeteko epean ez badu ebatzpenik jakinarazi, salbuespena emandakotzat joko da.

3. Behin aurreko zenbakietan aipatutako salbuespena emanda, salbuespen hori hurrengo zergaldietan aplikatzeko ez da beharrezkoa izango eskabidea berriro aurkezte, salbu hura ematea justifikatu zuten inguruabarrak edo arautegi aplikagarria aldatzen badira.

Alderdi politikoak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio salbuespena aplikatzeko galdatzen zaizkion baldintza eta betekizunetan gertatzen diren aldaketa esanguratsu guztiak. Alderdi politikoari 10 eguneko entzundaldia eskaini ondoren, salbuespena aplikatzen jarraitu behar den ala ez erabaki dezake Zerga Administrazioak. Era berean jokatuko da

Zerga Administrazioak edozein bide erabilita jakiten badu aldatu egin direla salbuespena aplikatzeko baldintza edo betekizunak.

4. Salbuespen hau aplikatzeko eskatzen diren betekizunak ez betetzeak hura aplikatzeko eskubidea galtzea ekarriko du, ez-betetzea gertatu den zergalditik bertatik aurrera.

14. artikulua. Alderdi politikoek jasotzen dituzten errenta salbuetsiak atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharratik kanpo daudela egiaztatzea.

Alderdi politikoek Zerga Administrazioaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu behar dute ez dutela jasotzen dituzten errenten gaineko atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar, nahiz eta Zergari buruzko Foru Arauko 38. artikuluko 2. zenbakian hala ezarri. Dena den, ziurtagiri horretarako eskabidea aurretik aurkeztu behar dute, Barne Ministerioko Alderdi Politikoen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiriaren kopiarekin batera.

Ziurtagirian bertan haren indarraldia jaso behar da: ziurtagiria egiten denean hasi, eta eskatzaileak indarrean duen zergaldia amaitzean bukatuko da.

III. KAPITULUA BALIOESPEN-ERREGELEN ARLOKO ZUZENKETAK ETA ABUSUAREN AURKAKO NEURRIAK

LEHEN ATALA ZENBAIT ERAGIKETA LOTUREN MERKATUKO BALIO NORMALA ZEHAZTEA

15. artikulua. Bazkide-profesionalen zerbitzu-emateak.

Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 4. zenbakian ezartzen denerako, hitzartutako balioa eta merkatuko balio normala bat datozela ulertu ahal izango du zergapekoak, baldin eta bazkide-profesional batek -pertsona fisikoa bada- entitate lotu bati egindako zerbitzu-ematea bada eta honako betekizun hauek betetzen badira:

- a) Entitateak Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluko 1. edo 2. zenbakian aurreikusten diren entitateetako bat izan behar du; entitate horren ekitaldiko sarreraren %75 baino gehiago jarduera profesionalak betetzetik etorri behar da; entitateak bitarteko material zein giza baliabide egokiak izan behar ditu, eta, azkenik, positiboa izan behar du bazkide-profesional guztiei zerbitzuak emateagatik dagozkien ordainsariak direla-eta egiten den kenkariaren aurre-aurreko ekitaldiko emaitzak.
- b) Bazkide-profesional guztiek entitateari emandako zerbitzuei dagozkien ordainsarien zenbatekoak ez du izan behar a) letran aipatzen den emaitzaren, hau da, aurre-aurreko ekitaldiko emaitzaren %65 baino txikiagoa.
- c) Bazkide-profesional bakoitzari dagozkion ordainsarien zenbatekoak honako betekizun hauek bete behar ditu:
 - 1.a Zenbateko hori bazkideek sozietateak ondo funtziona dezan egiten duten ekarpenaren arabera zehaztuko da, eta horretarako aplikatuko diren irizpide kualitatibo eta/edo kuantitatiboek idatziz jaso behar dira nahitaez.
 - 2.a Entitateko bazkide-profesionalen ordainsarien zenbatekoak ez du izan behar entitatean bertan antzeko eginkizunak, dedikazio baliokidearekin, betetzen dituzten soldatapeko langileen batez besteko soldata baino txikiagoa. Halako langilerik ez badago, lanaldi osoko dedikazioa duten bazkideen ordainsarien zenbatekoa ezin da handiagoa izan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 20. artikuluko 1. zenbakiko b) letran aipatzen den zenbatekoaren bikoitza baino; dedikazioa bestelakoa bada, lanaldiari dagokion proportzioan kalkulatu da ordainsarien zenbatekoa.

Nahiz eta bazkide-profesional batek 2. zenbaki honetan ezartzen den baldintza bete ez, gainerako bazkide-profesionaleri lerroalde honetan zehazten dena aplikatu ahal izango zaie.

Artikulu honetan jasotzen diren irizpideak kasu batean bakarrik aplikatuko dira: zergapekoak artikuluan bertan ezartzen dena aplikatzea erabakitzen duenean.

BIGARREN ATALA

DOKUMENTAZIO-BETEBEHARRAK PERTSONA EDO ERAKUNDE LOTUEN ARTEKO ERAGIKETETAN

16. artikulua. Dokumentazio-betebeharrak pertsona edo erakunde lotuen arteko eragiketetan: betebeharretatik salbuestea eta informazio-betebeharrak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 7. zenbakian aipatzen den salbuestea eskatu ahal izateko, nahitaez bete behar dira Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakian eta erregelamendu honetako hurrengo artikuluetan ezarritako baldintza guztiak, eragiketa bakoitzerako ezarritako gutxieneko atalasea gainditzeari dagokiona izan ezik.

Dokumentazio-betebeharretatik salbuesteko prozedura (zenbaki honetan ezarri dena) erregelamendu honetako 45. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik izapidetuko da. Ebazteko eskumena Ogasuneko zuzendari nagusiari dagokio. Dena dela, ebazpena eman aurretik egiaztapen murriztuko prozedura izapidetu beharko da, azaldutako betekizun guztiak betetzen diren egiaztatzeko.

2. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 5. zenbakiko d) eta g) letretan nahiz 6. zenbakian eta artikuluko honetako aurreko zenbakian ezartzen dena ez zaie aplikatuko pertsona fisikoa den bazkide-profesional batek berarekin lotutako entitate bati egindako zerbitzuengatik jasotzen dituen ordainsariei, ordainsariok lanaren edo ekonomia-jardueren etekinak badira bazkidearentzat. Izan ere, halako eragiketei erregelamendu honetako 15. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie, edo, bestela, aukera erabiltzen ez bada edo manu horretan ezarritako betekizunak betetzen ez badira, dokumentazio-betebeharren gaineko araubide orokorra aplikatuko zaie.
3. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru agindu bidez ezartzen den bezala eman beharko dute zergapekoek eragiketa lotuen inguruko informazioa.

17. artikulua. Zerbitzu-emateak, baldin eta haien ordainsaria lanaren edo ekonomia-jardueren etekinak badira.

1. Dokumentazio-betebeharretatik salbuesteko (Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko a) letran aipatzen den bezala), honako betekizun hauek ere bete beharko dira:

- a) Pertsona fisiko lotuak ordainsaria ematen dion entitateari egindako lanak edo jarduerak dokumentatu behar dira, motaren arabera bereizita (gerentziakoak edo zuzendaritzakoak, administratiboak, erosketen edo salmenten kudeaketakoak, eta bestelakoak).

Pertsona fisiko lotu batek ez badu lanaldi osoko dedikazioa, egoera hori justifikatu beharko du, Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakian aipatzen den gutxieneko atalasea hainbanatzeko.

Pertsona fisiko lotuak bazkideak badira eta halako batzuek zerbitzuak ematen badizkiote entitateari, dokumentatu egin behar dira bazkide bakoitzak egiten dituen jarduerak edo lanak nahiz bakoitzaren ordainsariak zehazteko erabilitako irizpideak islatzen dituzten sozietate-itunak.

- b) Gerentziako edo zuzendaritzako lanak egiten dituzten pertsona fisiko lotuen ordainsaria ezin da txikiagoa izan pertsona fisiko lotua izan gabe eta zerbitzu-dedikazio baliokidearekin besteren konturako langileetatik ordainsari handiena jasotzen duenarena baino.

- c) Ordainsariak banku-transferentzia bidez ordaindu behar dira, hilerro, urte guztian zehar; Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko a) letran aipatzen den gutxieneko atalasea, berriz, kopuru bereko hamabi hilekotan zatitu behar da.
2. Pertsona fisiko batek hari lotutako hainbat entitateri ematen badizkie zerbitzuak, Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko a) letran ezarritako gutxieneko atalasea haien artean hainbanatu beharko da, bakoitzarentzat lanean egindako denboraren eta egindako lanen arabera.

Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko a) letran eta artikuluko honetan ezarritako betekizunak betetzat jotzeko, aurreko zenbakian ezarritakoaz gainera, beharrezkoa da pertsona fisiko lotuak berak zerbitzuak ematen dizkien entitate guztietatik jasotako diru-kopurua, gutxienez, Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko a) letran ezarritako gutxieneko atalasearen bestekoa izatea.

18. artikulua. Finantzaketa-eragiketak.

1. Pertsona edo entitate lotuen arteko finantzaketa-eragiketak dokumentazio-betebeharretatik salbuesita daude (Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko b) letran aipatzen den bezala), eta ez bakarrik mailegu-eragiketak eta emandako maileguen zenbatekoak, bai eta merkataritzaz kanpoko aurrerakinak eta ordaindu gabeko ordainsariak ere.
2. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko b) letran aipatzen den salbuespena aplikatzeko, honako betekizun hauek ere bete beharko dira:
- a) Eragiketa bakoitzaren baldintzak dokumentatu behar dira: interes-tasa, indarraldia, amortizazio-kuoten eta interesen mugaegunak (kopuruok nola kalkulatu diren berariaz zehaztuta), mailegu-hartzailearen esku jarritako kapitalen jatorria, itzulketak kargatzeko edo ordaintzeko eta interesak ordaintzeko erabilitako banku-kontuak. Gauza bera egin behar da bazkideekin eta administratzaileekin eduki diren kontu korronteei buruz.
 - b) Eragiketen ondoriozko ordainketak zergaldi bakoitzean egin behar dira, banku-transferentziaren bidez, eta gutxienez transferentzia bat urtean.

19. artikulua. Ondasun higiezinaren errentamendua, azpierrementamendua edo haiek erabili eta lupertzeko eskubide errealekin eraketa edo lagapena.

1. Dokumentazio-betebeharretatik salbuesteko (Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko c) letran aipatzen den bezala), honako betekizun hauek ere bete beharko dira:
- a) Eragiketa idatzizko kontratu baten bitartez formalizatu behar da, eta bertan honako hauek agertu behar dira labur-labur: higiezinaren ezaugarriak, eragiketan parte hartzen duten alderdien identifikazioa, eragiketaren iraupena, errentariak edo lagapen-hartzaileak urtean ordaindu beharreko errenta, eta berariaz adierazi behar da noiz galdatu daitezkeen higiezinaren errentamenduaren edo azpierrementamenduaren edo eskubide errealekin eraketaren edo lagapenaren kuotak.
 - b) Eragiketen ondoriozko ordainketak zergaldi bakoitzean egin behar dira, banku-transferentziaren bidez, eta gutxienez transferentzia bat urtean.
2. Higiezinak ez badu esleituta esleitu beharreko gutxieneko baliorik, Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko c) letran ezarritako %4ko portzentajea aplikatuko zaio eskuraketa-prezioaren %80ari edo, bestela, Administrazioak azken eskualdaketa egiaztatutako balioari, balio hori eskuraketa-prezioa baino handiagoa bada, baldin eta eskualdaketa artikuluko honetan ezarritako arauak aplikatu behar diren urtearen aurreko lau urte naturaletan egin bada.

Aurreko arau horiek aplikatu ezin badira, tasatzaile independente batek kontratua burutu den eguna erreferentzia hartuta egindako higiezinaren tasazioaren %80ari aplikatuko zaio %4ko portzentaje hori.

3. Zergari buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 6. zenbakiko c) letran edo artikuluko honetako aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera zehaztutako balioa erreferentziatzen hartuko da kontratuaren iraunaldiko lehen urtean (datatik datara), eta hurrengo lau urteetan urtero eguneratuko da, kontsumo-prezioen indizearen urtetik urterako aldakuntza aplikatuta; urte horietako bakoitzean Estatistikako Institutu Nazionalak berrikuspen-egunaren aurretik argitaratutako azken balioa hartuko da erreferentziatzen.

Bost urtean behin, berriz kalkulatu beharko da higiezinaren balioa artikuluko honetan ezarritako metodoa aplikatuta.

20. artikulua. Gutxieneko atalaseak egokitzea.

Zergei buruzko Foru Arauko 46. artikuluko 6. zenbakian ezarritako zenbatekoak Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru agindu bidez egokituko dira, Zerga Administrazioak egindako azterketa eta egiaztapenek edo prezioen bilakaera orokorrak hala egitea gomendatzen dutenean. Agindu hori «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuko da.

21. artikulua. Zergadunaren dokumentazio espezifiko kasu jakin batzuetan.

1. Dokumentazioa dela-eta Zergei buruzko Foru Arauko 46. artikuluko 4. zenbakian ezartzen diren betebeharrak osorik galdutako dira, salbu eragiketan esku hartzen duten aldeetako bat Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluko 1. edo 2. zenbakietan aipatzen diren entitateetako bat bada edo, bestela, pertsona fisiko bat eta, gainera, eragiketa horiek ez badira egin paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateekin; kasu horretan, berriz, dokumentazioari lotutako betebeharrak zehatz hauek izango dituzte zergapekoak:
 - a) Aurreko 43. artikuluko 4. zenbakiko a), b), c) eta e) letretan ezartzen diren betebeharrak, baldin eta eragiketok Zergei buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 5. zenbakiko g) letrako 2. puntuan zehazten diren eragiketak badira.
 - b) Zergei buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 4. zenbakiko a) eta e) letretan ezartzen diren betebeharrak, eta Zergei buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 5. zenbakiko g) letraren 3. puntuan zehazten diren eragiketa bada, berriz, magnitudeak, portzentajeak, ratioak, fluxu-deskontuei aplikatu beharreko interes-tasak, igurikimenak eta balioa zehazteko erabilitako gainerako balioak ere bete beharko dituzte.
 - c) Zergei buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 4. zenbakiko a), c) eta e) letretan ezartzen diren betebeharrak, Zergei buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 5. zenbakiko g) letrako 4. puntuan zehazten diren kasuetan.
 - d) Zergei buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 4. zenbakiko a) letran ezartzen diren betebeharrak, bai eta erregelamendu honetako 15. artikuluan ezartzen diren baldintzak bete izanaren justifikazioa ere, artikuluko horretan zehazten dena aplikagarria zaien zerbitzu profesionalen prestazioak badira.
 - e) Zergei buruzko Foru Arauko 43. artikuluko 4. zenbakiko a) eta e) letretan ezartzen diren betebeharrak, eta gainerako kasuetan, bestalde, erabilitako balioespen-metodoa eta hartatik eratorritako balio-tartea identifikatu behar dira.
2. Zergei buruzko Foru Arauko 46. artikuluko 2. zenbakiko a) letran ezartzen denerako, artikuluko honetako aurreko zenbakian ezartzen dena aplikatu behar den kasuetan, datu-multzoz ezberdinak dira artikuluko honetako aurreko zenbakiko b), d) eta e) letretan aipatzen diren informazioak.

21 bis artikulua. Herrialdez herrialde eman beharreko informazioa.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 43.10. artikuluko 10. zenbakian ezarritako betebeharra aplikatu behar zaien erakundeek aitorten bat aurkeztu beharko dute, non herrialdez herrialde eman beharreko informazioa jasoko den. Aitorpena Ogasun eta Finantzen foru diputatuak onartutako ereduaren arabera izan behar da, eta ereduaren bertan zehaztuko da aitorpena nola aurkeztu behar den, zer baldintza orokor bete behar dituen eta zer prozedura bete behar den bitarteko elektronikoak erabiliz aurkezteko.
2. Aurreko zenbakian adierazitako informazioa aurkezteko, talde multinazionalak taldekoa den mendeko erakunde bat izendatu duenean eta erakunde horrek ezin duenean informazio guztia eskuratu herrialdez herrialde eman beharreko txostena legez ezarritako eran aurkezteko, izendapen hori ez egindakotzat joko da. Hala ere, mendeko erakunde horrek daukan informazioa aurkeztu beharko du eta inguruabar horren berri eman beharko dio Zerga Administrazioari.
3. Zergari buruzko Foru Arauko 43.10 artikuluaaren bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorrira Espainiako lurraldean egoiliar diren erakundeek edo Espainiako lurraldean dauden establezimendu iraunkorrek aurkeztu behar duten taldeari buruzko informazioa artikuluko horretan aipatzen den erakunde ez-egoiliarrari eskatu beharko diote erakundeek edo establezimendu iraunkorrek.
4. Herrialdez herrialde eman beharreko informazioa aurkezteko epea zergaldia amaitu eta hamabi hilabetera amaituko da.»

HIRUGARREN ATALA ERAGIKETA LOTUEN MERKATUKO BALIO NORMALA EGIAZTATZEA

22. artikulua. Merkatuko balio normala egiaztatzea.

1. Egiaztatze- eta ikerketa-prozedura batean egitekoa den erregularizazioaren xede bakarra ez denean balioa zuzentzea, hau da, beste elementu batzuk ere zuzendu nahi direnean, bada, orduan, zuzenketa horretatik eratorzen den likidazio-proposamena ez da dokumentatuko zerga-betebeharraren gainerako elementuengatik egin beharreko aktan, beste akta batean baino. Akta horretan justifikatu behar da merkatuko balio normala Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 4. zenbakian jasotako metodoetako baten arabera zehaztu dela, eta behar bezala adierazi behar da zergatik zuzendu behar den zergapekoak egindako balioespena.
2. Baldin eta ondasun eta eskubideen balioa egiaztatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauko 55. artikuluan jasotzen diren bitartekoetako bat erabili behar izan dela-eta posible bada peritu-tasazio kontrajarriaren prozedura sustatzea, baina horretarako dauden epeak igaro badira eta zergapekoak ez badu tasazio hori sustatu edo ez badu erreklamazioa edo errekurtsioa jarri, alderdi edo entitate lotuen arteko akordioak ez dagoelako, orduan, peritu-tasazio kontrajarria egiteko eskabidea errekurtsio edo erreklamazio bat aurkeztearekin batera egingo da, baina, lehenengo, eskabide hori bideratuko da, Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 2. zenbakian aipatzen den balioa zehazteko. Peritu-tasazio kontrajarria egiteko eskaera aurkezteak etendura-ondorioak izango ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauko 128. artikuluko 1. zenbakian ezartzen denaren arabera, eta, gainera, peritu-tasazio kontrajarriarekin batera aurkeztu diren errekurtsioak eta erreklamazioak ez onartzea ekarriko du.

Aurreko lerroaldean aipatzen den peritu-tasazio kontrajarriaren prozedura amaitu ondoren, alderdi edo entitate lotuek berraztertze-errekurtsioa edo administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri ahal izango dute, tasaziotik ateratzen den balioaren ondorioz egiten den behin-behineko likidazioaren aurka.

3. Behin zergapekoari egindako likidazioa irmo bihurtuta, Zerga Administrazioak gainerako pertsona edo entitate lotuen zerga-egoera erregularizatuko du, balio egiaztatuta eta irmoaren

arabera, eta, hala badagokio, berandutze-interesak aitortuko ditu. Erregularizazio hori gauzatzeko, likidazioa egingo da, aipatu irmotasuna gertatzen den momentuan autolikidaziorako epea amaitu zaion azken zergaldiari dagokiona, hain zuzen. Zergaldirik ez duten zergak direnean, erregularizazio hori gauzatzeko, egindako likidazioaren irmotasuna gertatzen den momentuari dagokion likidazioa egingo zaio zergapekoari.

Likidazio horretan, kontuan hartuko da Zerga Administrazioak egindako balio-zuzenketak zer ondorio izan dituen zuzenketa horrek hartutako zergaldi guztietako balio egiaztatu eta irmoaren gainean. Gainera, hala badagokio, likidazio horretan berandutze-interesak sartuko dira.

Era berean, zergapekoek balio egiaztatua aplikatu behar dute Administrazioaren erregularizazioa egin den zergaldiaren osteko hurrengo zergaldietako aitorpenetan, eragiketa lotuak zergaldiotan ondorioak sortzen dituenen.

4. Artikulu honetan arautzen den prozedura ez zaie aplikatuko balio-zuzenketak eraginda dauden pertsona edo entitateei, baldin eta Espainiako lurraldean egoiliarak ez badira edo bertan establezimendu iraunkorrik ez badute, Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 6. zenbakiko d) letran ezartzen denarekin bat.

Espainiako lurraldean egoiliar ez diren pertsona edo entitateek -non eta ez diren hartan kokatutako establezimendu iraunkorrek- estatu barruko antolamenduan sartutako itun edo hitzarmen bat argudiatu badezakete, pertsona edo entitateok adiskidetasunezko prozedurara edo arbitraje-prozedurara jo behar dute balioaren zuzenketak sor dezakeen zergapetze bikoitza ezabatzearen, Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 7. zenbakiko f) letran ezartzen denaren arabera.

5. Artikulu honetako aurreko zenbakietan xedatutakoa gorabehera, pertsona eta erakunde lotuek aldebiko doikuntza eskatu ahal izango dute, are balorazioa irmoa izan baino lehen, baldin eta Bizkaiko Foru Ogasunaren ikuskapen-eskumenaren menpeko diren pertsona edo erakunde lotu guztiak ados badaude. Hala gertatuz gero, zerga-ikuskaritzak aldi berean erregularizatu ahal izango du aurreko horien guztien zerga-egoera.

LAUGARREN ATALA
PERTSONA EDO ENTITATE LOTUEN ARTEKO ERAGIKETEN AURRETIAZKO
BALIOESPEN-AKORDIOAK

LEHENENGO AZPIATALA
ZERGAPEKOEK ESKATUTA ERAGIKETA LOTUEI BURUZKO AKORDIOA EGITEKO
PROZEDURA

23. artikulua. Aurretiazko jarduketak.

1. Pertsona edo entitate lotuek aurretiazko eskabidea aurkez diezaiokete Zerga Administrazioari, haien arteko eragiketen merkatuko balio normala zehazteko eskatu nahi diotenean; hona hemen eskaeraren edukia:
 - a) Eragiketak egingo dituzten pertsonen edo entitateen identifikazioa.
 - b) Balioa zehaztuko zaien eragiketen deskripzio laburra.
 - c) Egin nahi den balioespen-proposamenaren oinarritzko osagaiak.
2. Zerga Administrazioak aztertu egingo du aurretiazko eskabide hori, eta beharrezko argibideak eska diezazkieke interesdunei; gainera, aurretiazko balioespen-akordioa bideragarria den edo ez jakinaraziko die interesdunei.

24. artikulua. Prozedura hastea.

1. Pertsona edo entitate lotuek haien arteko eragiketak egin aurretik aurkez diezaiokete Zerga Administrazioari eragiketa horien merkatuko balio normala zehazteko eskaera, erregelamendu honetako 45. artikuluan ezartzen den prozedura orokorraren arabera, artikuluan honetan xehatzen diren berezitasunekin. Dena dela, eskaera horretan merkatuko balioan oinarritutako balioespen-proposamen bat -proposatutako metodoa azalduta- eta analisi bat jaso behar dira; bada, analisi horren bidez justifikatu behar da metodo hori aplikatzeak errespetatu egiten duela lehia askearen printzipioa.

Eskaera hori balioa zehaztea eskatzen duten pertsona edo entitateek sinatu behar dute, eta Zerga Administrazioari egiaztatu behar diote balioesteko eskatzen diren eragiketak egingo dituzten gainerako pertsona edo entitateek badutela balioespen-eskaera horren berri eta onartu egiten dutela.

2. Eskabidearekin batera zergari buruzko foru-arauren 43. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu behar da, balioespen-proposamenari aplikagarria bazaio; eskabidea kasuaren inguruabarretara egokitu behar da.

Balorazio-proposamenaren ebazpena dela-eta informazio-trukea egin behar bada beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuekin, elkarren laguntzarako tresna bat dela bide, inguruabar hori berariaz adierazi behar da; nolahi ere, prozedura ebazteko eskuduna den zerga-administrazioak ofizioz har dezake aintzat inguruabar hori. Aurrekoaz gainera, datu hauek ere adierazi behar dira:

- a) Entitate eskatzailea parte den merkataritzako taldearen edo talde fiskalaren identifikazioa; halaber jaso behar dira kontsultak eragindako erakunde ez-egoiliar guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak edo, halakorik ezean, kode baliokideak.
 - b) Enpresa-jardueraren deskripzioa edo balorazio-proposamenean jasotako transakzioena zein transakzio-segidena (eginiko transakzioena edo egin beharrekoena). Edozelan ere, deskripzio hori egiterakoan erabat errespetatu behar dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauketa eta interes publikoa.
 - c) Balorazio-proposamenaren xede diren transakzioen edo eragiketen eragina izan dezaketen estatuak.
 - d) Balorazio-proposamenaren ebazpenaren eragina izan dezaketen beste estatu batzuetako egoiliarak.
 - e) Aplikatzekoa den elkarren laguntzari buruzko araudiaren ondorioz eska litezkeen beste datu batzuk.
3. Arrazoituta erabaki daiteke eskaera izapidetzeko ez onartzea, honako inguruabar hauetako bat gertatzen denean:
 - a) Egin nahi den balioespen-proposamenak merkatuko balio normala zehazteko funtsik ez izatea, modu nabarmenean.
 - b) Funtsean aurkeztutako proposamenaren berdina diren beste balioespen-proposamen batzuk aurretik ere ezetsi izana.
 - c) Uste izatea ez dagoela balioespen-proposamenaren bidez saihestu daitekeen zergapetze bikoitza gertatzeko arriskurik.
 - d) Egin nahi den proposamena ezetsiko dela zehazteko balio duen beste edozein inguruabar.
 4. Kapitulu honetan araututako prozedurari dagokionez bakarrik izango ditu ondorioak aurkeztutako dokumentazioak, eta prozedura horri dagokionez bakarrik erabiliko da.

Proposamenean atzera egiten denean edo proposamen hori iraungi edo ezetsi egiten denean, dokumentazioa interesdunari itzuliko zaio.

25. artikulua. Akordioa izapidetzea eta ondorioak izatea.

1. Zerga Administrazioak proposamena aztertuko du, aurkeztutako dokumentazioarekin batera.
2. Erregelamendu honetako 45. artikuluko 3. zenbakian aipatzen den epea igaro bada, baina ez bada ebazpen espresurik jakinarazi, proposamena ezetsizat jo daiteke.
3. Prozedura amaitzen duen ebazpenak onetsi egiten badu zergapekoak aurkeztu duen balioespen-proposamena, edo, zergapekoak berak onartuta, ebazpen horrek hasieran aurkeztutako balioespen-proposamena barik beste bat onartzen badu, orduan, aurretiazko balioespen-akordioa agiri batean formalizatuko da. Hona hemen agiriaren gutxieneko edukiak:
 - a) Formalizatzeko tokia eta data.
 - b) Proposamenean aipatutako zergapekoen izen-deiturak edo sozietatearen izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - c) Zergapekoek akordioaren edukiei emandako adostasuna.
 - d) Proposamenean aipatutako eragiketen deskripzioa.
 - e) Balioespen-metodoaren funtsezko elementuak eta, hala badagokio, metodotik eratorritako balio-tartea, bai eta metodo hori aplikatzeko oinarritzotzat hartu beharreko inguruabar ekonomikoak ere, bereziki kasu kritikoak nabarmenduta.
 - f) Akordioa zein zergaldi edo likidazio-alditan aplikatuko den, eta noiz jarriko den indarrean.
4. Zerga Administrazioak eta zergapekoek aplikatu egin behar dute onartu den proposamenetik eratoritzen dena.
5. Zerga Administrazioak egiaztatu dezake ea onartutako proposamenean jasotako gertakari eta eragiketak bat datozen benetan izandakoekin eta ea onartutako proposamena behar bezala aplikatu den.

Egiaztapen horretatik ateratzen bada edo onartutako proposamenean jasotako gertakari eta eragiketak ez datozela bat benetan izandakoekin, edo onartutako proposamena ez dela behar bezala aplikatu, kasu horretan, Zerga Administrazioak erregularizatu egingo du zergapekoen zerga-egoera.

6. Ezin dira errekurritu ez prozedura amaitzeko ebazpena ez hura ezesteko presuntziozko egintza; nolana ere, errekurtsioak eta erreklamazioak jar daitezke dena delako likidazio-egintzen aurka.

26. artikulua. Pertsona edo entitate lotuekin egindako eragiketak balioesteko akordioa aplikatzeari buruzko informazioa.

Onartutako aurretiazko balioespen-akordioaren aplikazioari buruzko idazki bat aurkeztu behar dute zergapekoek, Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioarekin batera. Hona hemen idazki horretan jaso beharreko informazioa, besteak beste:

- a) Autolikidazioan jasotako zergaldian edo likidazio-aldian egin diren eragiketetatik aurretiazko akordioa aplikatu zaienak.

- b) Aurretiatzko akordioa aplikatzearen ondorioz aurreko eragiketak egiteko finkatutako prezio edo balioak.
- c) Aurretiatzko akordioan aipatutako balioespen-metodoa aplikatzeko oinarritzotzat hartu behar diren inguruabar ekonomikoen aldaketa nabarmenen deskripzioa, halakorik badago.
- d) Zergaldian edo likidazio-aldian egin diren eta aurretiatzko akordioan jasotzen diren eragiketen antzekoak diren eragiketak, haien prezioak eta aurretiatzko akordioaren esparruan jasotako eragiketei dagokienez dauden diferentzien deskripzioa.

Dena den, beste administrazio batzuekin sinatutako akordioetan, haietatik eratorritako dokumentazioa aurkeztu behar du urtero zergapekoak.

27. artikulua. Aurretiatzko balioespen-akordioa aldatzea.

1. Baldin eta nabarmen aldatzen badira aurretiatzko balioespen-akordioa onartzean dauden inguruabar ekonomikoak, akordio hori aldatu egin ahal izango da, inguruabar ekonomiko berrietara egokitzeko. Aldatzeko prozedura ofizioz edo zergapekoek eskatuta has daiteke, erregelamendu honetako 45. artikuluan ezartzen den prozedura orokorraren arabera, artikulua honetan xehatzen diren berezitasunekin.
2. Aldaketa eskatzen duten pertsona edo entitateek sinatu behar dute akordioa aldatzeko eskabidea, eta Administrazioari egiaztatu behar diote balioesteko eskatzen diren eragiketak egingo dituzten gainerako pertsona edo entitateek badutela aldatzeko eskaera horren berri eta onartu egiten dutela. Hona hemen eskabidean jaso beharreko informazioa:

- a) Inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu izanaren justifikazioa.
- b) Inguruabarrak aldatzearen ondorioz egin beharreko aldaketa.

Aldaketak eragindako edozein pertsona edo entitatek eskaeran atzera eginez gero, amaitu egingo da aldaketarako prozedura.

Zerga Administrazioak ebazpen arrazoitua emango du, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta zergapekoei entzun ondoren; zergapekoek hamabost eguneko epea izango dute horretarako. Zerga Administrazioak hau egin dezake ebazpen horren bidez:

- a') Zergapekoek proposatutako aldaketa onar dezake.
 - b') Zergapekoak onartuta, hasieran aurkeztutakoaz besteko balioespen-proposamen bat onar dezake.
 - c') Zergapekoek proposatutako aldaketa ezets dezake, eta, ondorioz, berretsi edo indargabetu egingo du hasieran onartutako aurretiatzko balioespen-akordioa.
3. Aldaketarako prozedura Zerga Administrazioak hasia denean, proposamenaren edukiaren berri emango zaie zergapekoei, eta hilabeteko epea izango dute, proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, hauek egin ahal izateko:
 - a) Aldaketa onartzeko.
 - b) Ordezko aldaketa bat proposatzeko, behar bezala justifikatuta.
 - c) Aldaketari ezezkoa emateko, zergatiak adierazita.

Zerga Administrazioak ebazpen arrazoitua emango du, behin dokumentazioa aztertuta. Zerga Administrazioak ebazpenaren bidez hau egin dezake:

- a') Aldaketa onar dezake, zergapekoek lehenago ontzat eman badute.

- b') Zergapekoek proposatutako ordezeko aldaketa onar dezake.
 - c') Ondoriorik gabe utz dezake hasierako balioespen-proposamena onartzeko erabakia.
 - d') Hasierako balioespen-proposamena aplikatzen jarraitzea deklaratu dezake.
4. Beste zerga-administrazio batekin akordio bat izanez gero, aurretiatzko balioespen-akordioa aldatu aurretik beharrezkoa izango da administrazio horrekin hartutako akordioa aldatzea. Horretarako, erregelamendu honetako 29. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen den prozedurari jarraituko zaio.
 5. Erregelamendu honetako 45. artikuluko 3. zenbakian aipatzen den epea igaro bada, baina ez bada ebazpen espresurik jakinarazi, proposamena ezetsizat jo daiteke.
 6. Ezin dira errekurritu ez aldaketa egiteko prozedura amaitzeko ebazpena ez hura ezesteko presuntziosko egintza; nolana ere, errekurtsioak eta erreklamazioak jar daitezke dena delako likidazio-egintzen aurka.
 7. Aldaketa onartzeak erregelamendu honetako 25. artikuluan aurreikusten diren ondorioak izango ditu, aldaketa hori eskatu ondoren edo, hala badagokio, aldatzeko proposamena komunikatu ondoren egiten diren eragiketei dagokienez.
 8. Hasierako aurretiatzko balioespen-akordioa ondoriorik gabe uzteko ebazpenaren ondorioz iraungi egingo dira erregelamendu honetako 25. artikuluan aurreikusten diren ondorioak, aldaketa hori eskatu ondoren edo, hala badagokio, aldatzeko proposamena komunikatu ondoren egiten diren eragiketei dagokienez.
 9. Zergapekoek eskatutako aldaketa ezesteak hona hau eragingo du:
 - a) Erregelamendu honetako 25. artikuluan aurreikusten diren ondorioak berrestea, inguruabar ekonomikoak nabarmen aldatu direla frogatzen ez denean.
 - b) Erregelamendu honetako 25. artikuluan aurreikusten diren ondorioak iraungitzea, aldaketa ezetsi ondoren egiten diren eragiketei dagokienez, gainerako kasuetan.

28. artikulua. Aurretiatzko balioespen-akordioa luzatzea.

1. Zergapekoek lehenago onartu den balioespen-akordio baten balio-epea luzatu dezala eska diezaiokete Zerga Administrazioari, erregelamendu honetako 45. artikuluan ezartzen den prozedura orokorraren arabera, artikuluan honetan xehatzen diren berezitasunekin. Balio-epea amaitu aurreko sei hilabeteak baino lehen aurkeztu behar da eskabidea, jatorrizko eskaeran agerian jarritako inguruabarrak aldatu ez direla justifikatzeko egoki irizitako dokumentazioarekin batera.
2. Luzatu nahi den aurretiatzko balioespen-akordioa sinatu zuten pertsona edo entitateek sinatu behar dute aurretiatzko balioespen-akordioa luzatzeko eskabidea, eta Zerga Administrazioari egiaztatu behar diote eragiketak egingo dituzten gainerako pertsona edo entitate lotuek luzatzeko eskabidearen berri dutela eta onartu egiten dutela.
3. Erregelamendu honetako 45. artikuluko 3. zenbakian aipatzen den epea igaro bada, baina ez bada balioespen-akordioaren balio-epea luzatu izana jakinarazi, eskabidea ezetsizat jo daiteke.
4. Ezin dira errekurritu ez akordioa luzatzea erabakitzeko ebazpena ez hura ezesteko presuntziosko egintza; nolana ere, errekurtsioak eta erreklamazioak jar daitezke dena delako likidazio-egintzen aurka.

BIGARREN AZPIATALA
ERAGIKETA LOTUAK DIRELA-ETA BESTE ZERGA-ADMINISTRAZIO BATZUEKIN
AKORDIOAK LORTZEKO PROZEDURA

29. artikulua. Arau aplikagarriak.

Beste zerga-administrazio batzuekin akordioak lortzeko prozedura azpiatal honetan jasotako arauari lotuko zaie, eta kapitulu honetako xedapenak ere aplikagarriak izango dira. Halaber, arau eta xedapen horiek guztiak aplikatu behar dira beste zerga-administrazio batek Zerga Administrazioari eskatzen dionean prozedura bat has dezala, pertsona edo entitate lotuen arteko eragiketak balioesteko akordio bat sinatzearen.

30. artikulua. Prozedura hastea.

1. Baldin eta zergapekoek eskatzen badute egindako proposamena pertsona edo entitate lotuek egoitza duten herrialde edo lurraldeko beste zerga-administrazio batzuek ere aintzat har dezatela, Zerga Administrazioak aztertuko du ea egokia den prozedura hori hastea. Prozedura hastea ezesten bada, horretarako arrazoiak eman behar dira, eta ezin da ezesprenaren aurka egin.
2. Aurretiazko balioespen-prozedura baten barruan, Zerga Administrazioak egoki irizten badio prozedura horrek eragin diezaieken beste zerga-administrazio batzuek ere gai hori azter dezatela, bada, orduan, erabaki horren berri emango die pertsona edo entitate lotuei. Zergapekoak horretarako baimena eman behar du, nahitaez, beste zerga-administrazioari edozer jakinarazi aurretik.
3. Prozedura hasteko eskabidea zergapekoak aurkeztu behar du, erregelamendu honetako 24. artikuluan ezartzen den dokumentazioarekin batera.

31. artikulua. Izapidetzea.

1. Beste zerga-administrazio batzuekin dauden harremanetan, pertsona edo entitate lotuak behartuta daude balioespen-proposamenarekin zerikusia duten datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak aurkeztera.

Bi zerga-administrazioen ordezkariak hala adostuz gero, zergapekoek parte har dezakete akordioa zehazteko jardueretan.

2. Zerga-administrazioen akordio-proposamenaren berri emango zaie subjektu interesdunei, eta azken horiek ezinbestez onartu behar dute, eragindako administrazioen arteko akordioa sinatu ahal izateko.

Akordio-proposamenaren aurka egiteak balioespen-proposamena ezestea ekarriko du.

3. Akordio-proposamena onartuz gero, organo eskudunak akordioa sinatuko du beste zerga-administrazioekin eta haren kopia helaraziko die interesdunei.

HIRUGARREN AZPIATALA
AZPIKAPITALIZAZIO-KOEFIZIENTEAREN GAINEKO AURRETIAZKO AKORDIOEN
BEREZITASUNAK

32. artikulua. Beste azpikapitalizazio-koefiziente bat zehazteko prozedura aplikatzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 47. artikuluko 4. zenbakian zehazten diren kasuetan, beste azpikapitalizazio-koefiziente bat aurretiaz zehazteko prozedura erregelamendu honetako 24-28. artikuluetan ezarritako arauak jarraituz egingo da, artikuluko honetan xehatzen diren berezitasunekin.
2. Zergari buruzko Foru Arauko 47. artikuluko 1. zenbakian ezarri den koefizientearen ordezkari bat aplikatzea proposatu ahal izango diote zergapekoek Zerga Administrazioari,

artikulu bereko 4. zenbakian ezartzen denarekin bat. Eskabide horrekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Entitatearen urteko kontuak.
- b) Zerga-ondorioetako kapital garbiari dagokionez zergadunak bere ustetan merkatuko baldintza normaletan pertsona edo entitate lotu gabeetatik lor zezakeen zorpetzea; eta haren justifikazioa.
- c) Entitatea parte den sozietate-taldearen deskripzioa.
- d) Entitate lotuak identifikatu behar dira, baldin eta entitatea haiekin zorpetu bada edo zorpetuko bada.
- e) Proposatutako zorpetze-koefizientea, eta haren justifikazioa. Koefiziente hori aplikatzeko oinarritzotzat hartu beharreko inguruabar ekonomikoak adierazi behar dira.

IV. KAPITULUA

SARREREN ETA GASTUEN DENBORAREN ARABERAKO EGOZPENA: SORTZAPEN IRIZPIDEA BARIK BESTE BATZUK ONESTEA

33. artikulua. Sortzapen irizpidea barik beste batzuk onestea.

1. Entitateek sarrera eta gastuak denboraren arabera egozteko erabiltzen duten irizpidea ez bada sortzapen-irizpidea, beste bat baino, irizpide horrek zerga-eraginkortasuna izan dezala eskatu ahal izango dute. Eskabide hori Zerga Administrazioari egingo diote erakundeok, eta haren aurrean izapidetuko da, erregelamendu honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorrekarekin bat etorrira. Eskabide horrek artikulu honetako hurrengo zenbakietan xehatutako berezitasunak izango ditu.
2. Eskabideak honako datuok izan beharko ditu:
 - a) Denboraren arabeko egozpena egiteko irizpideak eragiten dien sarrera eta gastuak deskribatu behar dira. Halaber, haien izaera eta subjektu pasiboaren eragiketen osotasunean duten garrantzia azaldu behar dira.
 - b) Denboraren arabeko egozpena egiteko irizpidea deskribatu behar da; izan ere, haren zerga-eraginkortasuna eskatzen da. Denboraren arabeko egozpena egiteko irizpidea nahitaez bete behar bada, zehaztu egin beharko da zerk kontabilitate-arauk ezartzen duen betekizun hori.
 - c) Justifikatu beharko da denboraren arabeko egozpena egiteko proposatzen den irizpidea egokia dela urteko kontuen irudi fidela emateko, eta azaldu behar da irizpide horrek zer eragin duen zergadunaren ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan.
3. Eskabidea aurkeztu behar da gutxienez sei hilabete falta direnean irizpide-aldaketak ondorioak sortzea nahi den lehenengo zergaldia amaitzeko.
4. Zergari buruzko Foru Arauko 54. artikuluko 2. zenbakiko bigarren lerroaldean aipatzen diren kasuetan, artikulu honetako 1. zenbakian aipatutako eskabideak honako hauek jaso behar ditu:
 - a) Denboraren arabeko egozpena egiteko irizpideak eragiten dien sarrera eta gastuak deskribatu behar dira.
 - b) Memoria bat, non azaldu behar diren zer berezitasun dituen eskaera egiten dituen entitateak, eskatzen den irizpidea aplikatzea justifikatzen dutenak, alegia.
 - c) Justifikatu behar da denboraren arabeko egozpena egiteko eskatzen den irizpidea egokitu egiten zaiela aurreko letran aipatutako berezitasunei.

- d) Justifikatu behar da erabilitako irizpideak ez duela ezertan aldatuko entitatearen sarreren edo gastuen zerga-kalifikazioa.

III. TITULUA ZERGA-ZORRA

34. artikulua. Aktibo ez-korronte berrietan egindako inbertsioengatiko kenkaria.

Lagapena egiteko legezko betebeharrak bat betez eskuratutako aktiboak badira, entitate lagatzaileak ezin izango du aplikatu Zergari buruzko Foru Arauko 61. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan jasotzen den kenkaria, eta lagatzaileak aktiboan jasotako zenbatekoak ezingo dira zenbatu ez ekitaldiko inbertsio gisa, ez aurretik zeuden aktibo gisa, 61. artikuluko horretako 3. zenbakiko d) letran ezartzen den betekizuna betetzeko.

35. artikulua. Ikerketa eta garapen jarduerengatiko nahiz berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkariak aplikatzeko txosten arrazoitua.

1. Gaiaren arabera eskumena duen Eusko Jaurlaritzako edo Bizkaiko Foru Aldundiko saila edo haiei atxikitako erakunde edo entitate bat izango da, hain zuzen ere, Zergari buruzko Foru Arauko 64. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren txosten arrazoituak emateko organo eskuduna.
2. Txosten arrazoitua, aurrerantzean, «zerga-ondorioetarako kalifikazio-txostena» deituko da. Bada, txosten hori emateko eskabideak urtero aurkeztu behar dira, urte bakoitzeko abenduaren 31 baino lehen, eta organo eskudunari zuzendu behar zaizkio. Eskabideek proiektuaren azalpen-memoria bat jaso behar dute, eta eskatzailea zein hark egindako jarduerak identifikatu behar dituzte.

Memoria horretan zehaztuko dira zer jarduerak egingo dituzten eskatzaileak eta hark azpikontratutako pertsonak edo entitateak, eta zehaztuko dira, gainera, zer gastu eta inbertsio eragingo dituzten jarduerok, urte bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztuta.

3. Proiektuak beste entitate batzuekin lankidetzan egiten badira, proiektu bakoitzeko eskaera bakarra aurkeztu behar dute urtean, entitate guztiek sinatuta, eta partaideetako bat izendatu behar dute solaskidetzara, harreman eta jakinarazpen ondorioetarako. Proiektuaren memorian jasota utzi behar da parte hartzen duen entitateetako bakoitzak zer jarduerak egingo dituen eta zer aurrekontu dagokien.

Txosten bana emango zaie proiektuan parte hartzen duten entitateei.

4. Nolanahi ere, organo eskudunak eskabidea behar bezala ulertu, izapidetu eta ebaluatzeko behar duen dokumentazio guztia eska diezaieke entitate eskatzaileei.
5. Organo eskudunak emandako txosten arrazoituetan behar bezala bereizita identifikatu behar dira Zergari buruzko Foru Arauko 62. eta 63. artikuluetan jasotzen diren kontzeptuen arabera garatzekoak diren jarduerak, betiere jarduerotako bakoitzari lotutako gastu eta inbertsioak egotzita.

36. artikulua. Txostenaren ondorioak eta Zerga Administrazioaren ahalmenak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako organo eskudunak eman dituen txosten arrazoituek lotu egingo dute Zerga Administrazioa, jardueraren izaerari dagokionez nahiz hura ikerketa, garapen edo berrikuntzako jarduerak gisa kalifikatzeari dagokionez.
2. Zerga Administrazioak egiaztatu behar du ea inbertsioak eta gastuak benetan egin diren eta egindako jarduerak txostenean jasotakoei egokitzen zaizkien; horretarako, beharrezko deritzon justifikazioa eska dezake edonoiz.

3. Zerga Administrazioak eskatuta aurreko artikuluan aipatutako txosten arrazoitua aurkezten duen zergadunak aplikatu behar ditu Zergari buruzko Foru Arauko 62. eta 63. artikuluetan jasotzen diren kenkariak.

Era berean, Zerga Administrazioak aurreko 35. artikuluko 1. zenbakian aipatutako organoari eska diezaioke txosten osagarri bat egin dezan, zergadunek ikerketaren, garapenaren edo berrikuntzaren alorrean egiten dituzten jardueren izaerari eta kalifikazioari buruzko informazioa gehitzeko.

4. Zerga Administrazioak, hala badagokio, txostena eska diezaioke gaiaren arabera eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiko sailari, kenkarirako eskubidea egiztatzen duten jardueren izaera eta kalifikazioari buruzkoa, hain zuzen.

36 bis artikulua. Ikerketako eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, zergadun batek beste zergadun batek egindako ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektu baten finantzaketan parte hartzen duela ulertuko da baldin eta diruzenbatekoak ematen baditu proiektuaren kostuak osorik edo partez ordaintzeko, eta proiektua egiten duenak zergadunak zenbatekook itzuliko ez dizkiola aurrez ikusten bada.

Ez da onartuko ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologiko proiektu baten finantzaketan parte hartzen duen zergadunaren posizioan subrogatzea, oinordetza unibertsalaren kasuetan izan ezik.

2. Zergaren Foru Arauaren 64.bis artikulua 2. zenbakian aipatzen den finantzaketa-kontratua proiektuari ekin baino lehen formalizatu behar da; nolahi ere, proiektua gauzatzen den lehen sei hiletan ere formalizatu ahal izango da, baldin eta Zergaren Foru Arauaren 64.bis artikulua 6. zenbakian aipatzen den txostena proiektua hasi aurretik eskatu bada, edo bestela gauzatzen den lehen hiru hiletan.

Aurreko paragrafoko bigarren tartekian aipatzen den kasuan, finantzaketa-kontratuari Zergaren Foru Arauaren 64.bis artikulua 6. zenbakian aipatzen den txostenaren kopia aplikatu behar zaio, eta artikulua horren 1. zenbakian xedatzen denaren aplikazioa etenda geldituko da harik eta txosten hori jaso arte..

3. Zerga Administrazioari egin beharreko komunikazioa, Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis artikuluko 6. zenbakian aipatzen dena, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak horretarako onartutako eremuan egin behar da, eta komunikazio horri finantzaketakontratua eta —foru- arau horren 64 bis artikuluko 6. zenbakian aipatzen den— txostena erantsi behar zaizkio, aurreko zenbakiko azken paragrafoan zehaztutako kasuan izan ezik. Izan ere, kasu horretan, komunikazioari txostenaren eskabidea erantsi beharko zaio, baina, edozelan ere, zergadunak txostena jasotzen duenean, beste komunikazio osagarri bat aurkeztu beharko du txosten hori erantsita duela, txostena jaso eta hiru hilabeteko epearen barruan.
4. Zergari buruzko Foru Arauaren 64 bis artikuluko 4. zenbakiaren bigarren paragrafoan ezarritako muga modu orokorrean aplikatuko da ikerketako, garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten den zergaldi guztietan.
5. Zergaldi batean zenbateko batzuk aplikatu gabe geratu badira aurreko zenbakian aipatutako mugaren ondorioz, aplikatu gabeko horiek hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango dira, zergaldi bakoitzean errespetatu beharreko muga errespetatuta betiere.
6. Gorabehera tekniko edo ekonomikoren bat gertatuz gero, zergadunek baimena eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari teknologien arloko ikerkuntza eta garapeneko edo berrikuntzako proiektuak finantzatzeko kontratuak aldatu ahal izateko, ordaintzen eta gastuen eta inbertsioen egutegia gorabeheraren arabera doitzeko. Halaber, finantzatzailearen kaudimenaren inguruko inguruabar bereziren bat gertatzen bada, Zerga Administrazioari baimena eskatu ahal izango zaio teknologien arloko ikerkuntza eta

garapeneko edo berrikuntzako proiektu bat finantzatzeko formalizatutako kontratuetan ari den zergadunaren lekuan subrogatzeko.

Baimen-eskaerak araudi honen 45. artikuluan arautzen den prozeduraren arabera izapidetuko dira, eta aurreko paragrafoetan aipatzen den gorabehera gertatzen denetik hiru hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar dira. Prozeduraren amaieran Ogasuneko zuzendari nagusiak ebazpena emango du.

36 ter artikulua. Negozio-prozesuak berrikuntza teknologikoaren esparruan.

Zergaren Foru Arauaren 63. artikulua 2. paragrafoan xedatzen dena dela-eta, honako hauek dira negozio-prozesuak:

- a) Ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena: Baliabideak edo lehengaiak eraldatzea azken produktua lortzeko, ondasuna zein zerbitzua. Jarduera bat ondasunen eta zerbitzuen ekoizpentzat jotzeko, enpresaren negozio nagusiarekin lotuta egon behar da.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Ingeniaritzako jarduerak.
- Produktuen muntaketa.
- Ekoizpenaren kudeaketa.
- Zerbitzuen prestazioaren kudeaketa.
- Kalitate-kontrolen establezimendua.
- Ekoizpenerako proba teknikoak, analisiak eta ziurtapenak egitea.
- Osagaiak fabrikatzea.

- b) Administrazioa eta kudeaketa: Beharrezko jarduera operatiboak, azken produktuarekin edo zerbitzuarekin zuzenean lotuta ez daudenak, baina enpresaren jarduera nagusiaren lagungarriak direnak: finantzen arloko eta administrazioaren arloko baliabideak eta prozesuak kudeatzea, kontrolatzea eta optimizatzea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Enpresaren eta estrategiaren kudeaketa eta antolaketa.
- Gobernantza korporatiboa (legeria, plangintza eta harreman publikoak).
- Kontabilitatea, liburuak artezteak, auditoretza, ordainketak, eta finantzen edo aseguruaren inguruko beste jarduera batzuk.
- Pertsonen kudeaketa (prestakuntza eta heziketa, langileak kontratatzea, lantokia antolatzea, aldi baterako langileak kontratatzea, nominak kudeatzea, osasun-laguntza eta medikuntza-laguntza).
- Ondasunen eta laguntza-zerbitzuen erosketen kudeaketa.
- Kanpoko harremanen kudeaketa: hornitzaileak edo aliantzak, batez ere.

- c) Banaketa eta logistika. Hornigaiak eta produktuak erostea eta biltzea, eta produktu bukatuak bezeroei eramatea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Eskariaren inbentarioa egitea eta plangintza.
 - Lehengaien eta produktuen erosketak kudeatzea.
 - Biltegia kudeatzea.
 - Eskaerak bideratzea.
 - Produktuak ontziratzea.
 - Produktuak garraiatzea eta ematea.
- d) Marketina eta salmentak: Kontsumitzaileen beharrianak eta jokabideak aztertzea, eta merkatuaren eskaria asetzen duen produktua edo zerbitzua sustatzea, zabaltzea eta saltzea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Merkatua ikertzea.
 - Publizitatea eta komunikazioa.
 - Merkatu berriak garatzea.
 - Prezioak finkatzeko estrategiak eta metodoak.
 - Salmenta-kanalen estrategia eta kudeaketa.
 - Salmenta eta salmenta ondoko jarduerak, bezeroaren arretarako zerbitzuak barne.
- e) Informazioa emateko eta komunikatzeko sistemak. Enpresaren gainerako negozio-prozesuen kudeaketa operatiboa sustatzeko behar diren hardwarea eta softwarea kudeatzea, garatzea eta mantentzea.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Beharrian eta zehaztaperen funtzionalak identifikatzea.
 - Hornidura (CPUak, RAM, txartel grafikoa, lizentziak eta antzekoak).
 - Diseinatzea, garatzea, mantentzea eta eguneratzea.
- f) Produktua eta negozio-prozesuak garatzea: Ondasun edo produktu bat edo enpresaren negozio-prozesuetako bat (ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena, administrazioa eta kudeaketa, banaketa eta logistika, marketina eta salmentak, eta informazioa emateko eta komunikatzeko sistemak) diseinatzeko edo birdiseinatzeko egin beharreko jarduerak.

Letra honetan honako jarduera hauek daude:

- Produktuaren edo zerbitzuaren kontzeptua eta ideia sortzea.
- Bideragarritasun teknikoari eta ekonomikoari buruzko azterketak (negozio- planak egitea).
- I+G jarduerak kudeatzea.
- Diseinatzea eta garatzea.

- Prototipoa sortzea, testak egitea eta baliozkotzea.
- Negozio-prozesua ezartzea.
- Produktua kaleratzea (ondasunen industrializazioa barne).

37. artikulua. Garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobekuntza zein energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzera zuzentzen diren proiektuekin loturiko inbertsio eta gastuengatikoko kenkaria.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 65. artikuluko 2. zenbakiko b) letran ezartzen dena betetzearren, honako gai hauek xede dituzten proiektuak garapen iraunkorraren eta ingurumenaren zaintza eta hobekuntzaren arloko proiektutzat hartuko dira:

- a) Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balorizatzea: talde honetan sartuko dira Hondakinei eta kutsatutako lurzoruei buruzko 2011ko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta lege hori garatzeko araudian jasotzen diren definizioen arabera norberaren edo hirugarrenen hondakinak gutxitzea lortzen duten proiektuak. Ondore horietarako, balorizazioa izango da bai birziklatzea (konpostajea eta biometanizazioa barne), bai balorizazio energetikoa.
- b) Mugikortasuna eta garraio iraunkorra: talde honetan sartuko dira emisio kutsatzaileak (emisioek legeaz duten definizioaren arabera) gutxitzea lortzen duten proiektuak, bai eta erregai fosilen kontsumoa gutxitzea eragiten dutenak ere.
- c) Natur guneetako ingurumena birsortzea, konpentsazio-neurriak betearazi edo borondatezko beste jarduketa batzuk egitearen ondorioz: talde honetan sartuko dira ekosistemen egitura eta funtzionamendua berrezarritik ingurune naturalek duten ingurumenaren kalitatea hobetzen laguntzen dutenak.

Birsortze-jardueretan egindako ordainketei dagokienez, kasu hauetan ulertuko da ordainketok kenkariaren oinarrian sartuta daudela: administrazio-ebazpen batean jaso diren konpentsazio-neurri ez-derrigorrezkoak betetzearen ondorioz egin badira, edo izadian eragina duten bestelako borondatezko jarduketa batzuen ondorioz egin badira, eta inbertsiogilearen aktibo higiezinaren parte badira edo haren parte izango badira.

- d) Ur-kontsumoa minimizatzea eta ura araztea: hobekuntza dakarten proiektuak sartuko dira talde honetan, eta hobekuntza izan daiteke edo zergadunek legeaz dituzten arazketa betebeharren ingurukoa, edo inbertsioa egin aurreko ur-kontsumoen ingurukoa.

Ur-kontsumoan izandako aurrekia edo arazketa hau da: instalazioetan berrikuntza teknologikoak ezartzeko egin den inbertsioaren ondorioz lortutako emaitza.

- e) Energia berriztagarrien erabilera: talde honetan iturri berriztagarriak aprobetxatzeko proiektuak sartuko dira, baldin eta haiek sortzen duten energia zuzeneko kontsumorako erabiltzen bada inbertsiogilearen instalazioetan bertan, edo, bestela, banaketa-sareetan sartzeko erabiltzen bada.

Sortzen den energia berriztagarria banaketa-sareetan sartzeko bada, inbertsioak zergadunak jarduera ekonomikoa egiten duen instalazioetan egin behar dira, eta jarduera ekonomikoki hori energia berriztagarria sortu eta merkaturatzea ez den beste jarduera bat izan behar da nahitaez.

- f) Energia-eraginkortasuna; talde honetan inbertsiogilearen energia-intentsitatea txikitzea dakarten proiektuak sartuko dira.

Horri dagokionez, energia-intentsitatea hau da: produktu-unitate bakoitzeko kontsumitzen den energia kopurua (energia-kontsumo espezifiko), edo, zerbitzuen sektoreko

enpresetan, negozioen kopuru garbiaren arabera kontsumitzen den energia kopurua (energia-aurrezkia).

2. Aurreko 1. zenbakian zehazten diren gutxitzeak edo hobekuntzak kalkulatzeko, proiektua burutzen hasten den lehenengo zergaldiaren aurreko zergaldia hartuko da kontuan.

Enpresa ezarri berriak badira, funtzionamendurako eredu estandarrak hartuko dira aintzat gutxitzeak edo hobekuntzak kalkulatu ahal izateko; ereduok arlo horretan eskuduna den Bizkaiko Foru Aldundiko foru diputatuaren foru agindu bidez zehaztuko dira.

3. Zergadunek proiektu bakoitzeko jakinarazi behar dute kenkaria aplikatuko dutela, eta, horretarako, idazki bat bidali behar diote ingurumenaren arloan eskuduna den Bizkaiko Foru Aldundiko Sailari, zergadunak kenkaria aplikatzen duen lehenengo zergaldia amaitu aurretik.

Jakinarazpenak honako informazio hau jaso behar du, gutxienez:

- a) Proiektuaren deskripzio zehatza; haren xedea identifikatu behar da, eta artikuluko honetako 1. zenbakiko zein kasutan sartzen den adierazi.
- b) Egin beharreko inbertsio-planaren kuantifikazioa eta inbertsiook egiteko egutegia.
- c) Erabiliko den teknologia, haren jatorria eta aurretik dauden erreferentziak.
- d) Sektoreko Administrazioak edo entitate homologatuek eman beharreko baimena, adostasun-txostena eta/edo ziurtagiria.

Eskabidea aurkezten duenean zergadunak ez badu aurreko agirietako bat ere ez, eskatutakoa onartzen zaionean nahitaez aurkeztu behar ditu.

4. Zergari buruzko Foru Arauko 65. artikuluko 3. zenbakiak ezartzen duenaren arabera, Zerga Administrazioak ingurumenaren arloan eskuduna den Bizkaiko Foru Aldundiko sailak emandako ziurtagiria aurkezteko eskatzen badio zergadunari, zergadunak sei hilabeteko epea edukiko du ziurtagiri hori emateko. Ziurtagiri horretan, inbertsio horiek kenkaria aplikatu ahal izateko egokiak direla jaso behar da.

Zergadunak, hari bakarrik egozgarriak diren arrazoiak direla eta, ez badu arestian aipatutako epean aurkezten ziurtagiri hori, galdu egingo du kenkaria aplikatzeko eskubidea.

Orobat, zergadunak, bere borondatez, Sozietateen gaineko Zergaren autolikidazioarekin batera aurkez dezake ziurtagiri hori, kenkari hau aplikatu duela justifikatzearen.

38. artikulua. Kenkaria enplegua sortzeagatik.

1. Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluko 1. zenbakiaren hirugarren paragrafoan xedatzen den kenkari handitua aplikatu ahal izateko honako baldintza hauek bete behar dira:
 - a) Batetik, kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan-kontratu mugagabea duen lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako langileen kopurua ez dadila murriztu hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan, eta, bestetik, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako langileen kopuru hori kenkaria sortu den zergaldiaren hasierakoa baino handiagoa izatea eta gehikuntza kenkari handitua aplikatzeko eskubidea ematen duten kontratuen kopuruaren bestekoa izatea, gutxienez.
 - b) Zergaren Foru Arauaren 66. artikuluko 2. zenbakiaren bigarren paragrafoan aipatzen den langileen kopurua (lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako langileak, lan-kontratu mugagabea dutenak) kontratazioak egin aurreko zergaldikoa baino handiagoa izan behar da, eta gehikuntza kenkari handitua aplikatzeko eskubidea

ematen duten kontratuen kopuruaren bestekoa izan behar da, gutxienez. Horretarako guztirako, artikuluko honen 3. zenbakian ezartzen den araua aplikatuko da.

Zenbaki honetan ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autolikidazioan sartu beharko du kenkaria handitzearen ondoriozko kuota, bai eta horri guztiari dagozkion berandutze-interesak ere.

2. Zergaren Foru Arauaren 66. artikulua 1. zenbakiaren hirugarren paragrafoan aipatzen den kenkari handitua aplikatu ahal izango da kontratatutako pertsona laneratzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako batean dagoenean, eta hori betetzat joko da pertsona hori, kontratazioa egin denean, artikuluko horretan aipatzen diren taldeetako batekoa izateaz gainera, honako talde hauetakoa ere izanez gero:
 - a) Desgaitasun-gradua %33koa edo handiagoa duten pertsonak.
 - b) Lanik gabe luzaroan egon diren pertsonak. Horren ondorioetarako, lanik gabe luzaroan egon diren pertsonak dira kontratazioaren aurreko azken 540 egunetatik 360 egunetan gutxienez lanik gabe eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo enpleguko beste zerbitzu publiko batean lan-eskatzailer moduan inskribatuta egon direnak. Langabearen izaera lan-bizitzaren bidez egiaztatuko da.
 - c) Guraso bakarreko familietako aita edo ama, baldin eta kontratatutako pertsona kontratazioaren aurreko hiru hiletan gutxienez lanik gabe eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo enpleguko beste zerbitzu publiko batean lan-eskatzailer moduan inskribatuta egon bada. Ondorio horietarako, halakotzat hartuko dira ordaindutako jarduerarik egiten ez duen ondorengoren bat edo batzuk beren kargu dituzten pertsonak. Langabearen izaera lan-bizitzaren bidez egiaztatuko da.
 - d) Genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeak; egoera horretan honako hauek daude: ezkontidearen eskutik edo afektibitate-harreman baten bitartez berarekin modu egonkorrean lotuta egon den pertsona baten eskutik indarkeria fisiko edo psikikoa jasan duten emakumeak, eta halako indarkeria jasan duen seme edo alaba baten ama, baldin eta indarkeria frogatzen bada 1/2004 Lege Organikoan xedatzen den bezala (1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa) edo Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuen esku-hartzearen frogagiriaren bidez.
 - e) Azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan arautzen diren laneratzeko enpresetan gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua amaitu duten pertsonak, baldin eta kontratazioa prozesua amaitu ondoko hamabi hiletan egiten bada.
 - f) Gizarteratzeko diru-sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean, Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan (Gizarte-bazterketaren kontrako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea garatzen du) eta Bizitzeko gutxieneko errenta ezartzen duen abenduaren 20ko 19/2021 Legean ezartzen diren laguntzen onuradunak, eta horien antzeko helburua duen beste laguntza publikoren bat, lurralde-administrazio publiko batek emana, jasotzen duten pertsonak.
 - g) Tokikomano izandako pertsonak (alkoholiko ohiak eta drogazale ohiak). Halakotzat joko dira talde terapeutikoaren ustez desintoxikazio-fasea eta mendekotasuna kentzeko fasea gainditu ondoren eta etengabeko tratamenduan sei hilabete emandakoan lanaren bidez gizarteratzeko programa batean egon behar direla uste den pertsonak.
 - h) Espetxean dauden pertsonak, hain zuzen ere lan-kontraturik ez dutenak eta espetxe-araubidearen arabera lanpostu bat eskuratzeko aukera dutenak, eta preso ohiak, baldin eta kontratazioa espetxetik irten ondoko hamabi hiletan egiten bada.
 - i) Atzerrian bizi diren langileak (lanean ari direnak zein ari ez direnak), Euskadira lan egitera itzuli nahi dutenak (Itzuli nahi duten emigranteen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan daudenak).

3. Zergaren Foru Arauaren 66. artikulua 2. zenbakiaren bigarren paragrafoan ezartzen denaren ondorioetarako, kontratazioak egin diren zergaldiaren aurreko zergaldiko egun guzti-guztietan egin diren langileen kopurua hartuko da kontuan.
4. Zergaren Foru Arauaren 66. artikulua 2. zenbakiaren azken paragrafoan ezarritako baldintza ez da bete gabetzat joko soldataren murrizketa eragiten duena denean langileak lanaldia murrizteko eskubidea erabiltzea soldataren murrizketa proportzionalarekin (eskubide hori Langileen Estatuaren Legearen testu bateginaren 37. artikulua 4 - 8 bitarteko zenbakietan onartzen da; testu bategin hori urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

38.bis artikulua. Kenkaria zilarrezko ekonomiarekin lotutako mikroenpresetan, enpresa txikietan edo enpresa ertain inbertitzeagatik.

1. Zergaren Foru Arauaren 66.bis artikuluan xedatzen denari dagokionez, entitate baten sozietate-xedea zuzenean lotuta dago zilarrezko ekonomiaren sektorearekin haren jardunaren zuzeneko helburua adineko pertsonen beharizan berezietara egokitutako ondasunak eta zerbitzuak diseinatzea, ekoiztea edota hornitzea denean, batez ere honako eremu hauetan: osasuna eta zaintza, komunikazioa, ekonomiaren eta finantzen inguruko aholkularitza, trebakuntza eta talentuaren aprobetxamendua, aisia eta entretenimendua, segurtasuna, garraioa eta etxebizitza.

Aurreko paragrafoan aipatzen den zuzeneko lotura egoteko, entitateak adineko pertsonen beharizan berezietara egokitutako ondasunak eta zerbitzuak diseinatzen, ekoizten edota hornitzen lortutako diru-sarrerak beraren diru-sarrera guztien % 50 izan behar dira gutxienez.

Aurreko paragrafoan aipatzen den baldintza Zergaren Foru Arauaren 66.bis artikuluko kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten akzioak edo partaidetzak eskuratzen diren zergaldian bete behar da, eta gutxienez hurrengo 5 zergaldietan ere bai.

2. Zergaren Foru Arauaren 66.bis artikuluan 6. zenbakian ezartzen denaren arabera, akzioak edo partaidetza harpidetu edo eskuratu zaizkion entitateak ziurtagiria egin behar du esanez ezarritako baldintzak bete direla, eta bertan zehaztu behar da zer eremutan dagoen entitatearen sozietate-xedea (aurreko zenbakian aipatu direnetako bat).

38.ter artikulua. Kenkaria zilarrezko ekonomiaren eta zaintzaren ekonomiaren eremuan egiten diren lanbide-prestakuntzako gastuengatik.

1. Zergaren Foru Arauaren 66.ter artikuluan aipatzen den kenkaria aplikatzeko, zilarrezko ekonomiatzat jotzen da adineko pertsonen sektoreak eskatzen eta egiten dituen jardueren eragin ekonomikoaren eta sozialaren ondoriozko aukeren multzoa.

Bereziki, zilarrezko ekonomiaren eremuan lanbide-prestakuntzako ekintzat joko dira honako eremu hauetako gaikuntza espezializatuko eta prestakuntzako jarduerak, baldin eta eremu horrekin lotuta badaude:

- a) Osasun-sistemak eta gizarte-sistemak, ingeniariak biomedikoa eta medikuntzako teknologiak eraldatzen eta konektatzen laguntzen duten soluzio teknologikoak eta digitalak.
- b) Telemedikuntza eta telelaguntza garatzea.
- c) Arrakala digitala txikitzea eta eraldakuntza digitalaren ondorioz langileak bere lanpostuan egin beharreko lanak egiteko behar diren trebetasun berriak eskuratzea.
- d) Finantzen arloko hezkuntza.

2. Halaber, eta kenkari hau aplikatzeko, zaintzaren ekonomiatzat joko da helduen eta haurren, adinekoen eta gazteen, pertsona hauskorren eta pertsona osasuntsuen behar fisiko, psikologiko eta emozionaleri erantzuteko jardueren eta harremanen multzoa.

Kenkaria aplikatzeko eskubidea emango dute zaintzaren ekonomiaren arloko trebakuntza-jarduerak, eremu hauetako batekin lotuta egonez gero:

- a) Mendekotasuna edota gaitasuna duten pertsonen birgaikuntza fisikoa eta kognitiboa.
 - b) Laguntza psikologikoa zaintzen diren pertsoneri eta beren zaintzaileei.
 - c) Osasunaren inguruko prebentzioari buruzko hezkuntza.
 - d) Gaixotasun kronikoetan nor bere burua zaintzen irakastea.
 - e) Zainketa aringarriak.
 - f) Soluzio teknologikoak eta digitalak aurreko letretako eremuetan.
3. Zergaren Foru Arauaren 66.ter artikuluan aipatzen den kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten trebakuntza-jarduerak honako baldintza hauek bete behar dituzte:
 - a) Langile bakoitzaren trebakuntza-blokearen iraupena 7 ordukoa izan behar da gutxienez.
 - b) Kenkaria aplikatzeko gehienez 40 trebakuntza-orduko gastuak onartuko dira ekitaldian trebakuntza jasotzen duen langile bakoitzeko. Hala ere, ekitaldi batean langile baten trebakuntza-orduak 40 baino gutxiago badira, 40ra iritsi arteko orduak hurrengo ekitaldian gehitu ahal izango zaizkio langile horri.
 - c) Trebakuntza entitatearen nahitaezko trebakuntza-planean agertu behar da, eta langileen lanaldian egingo da.
 - d) Langileek trebakuntzaren aprobetxamendua jaso dutela frogatu behar da.

IV. TITULUA

ZERGA-ARAUBIDE BEREZIAK

39. artikulua. Aplikazio-eremua eta jakinarazpenaren edukia itsas garraioko enpresen araubidean.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 72. artikuluan xedatutakoaren arabera, entitate batek araubide hau hautatzen duela ezagutarazteko jakinarazpena bidaltzen duenean, araubide horretan ustiatzen dituen itsasontzi guztiak sartu behar ditu jakinarazpenean, bai propioak bai alokatuta dituenak, bai eta geroago eskuratzen edo alokatzen dituenak ere.
2. Zerga-baterakuntzaren araubide berezian tributatzen duten entitateen kasuan, jakinarazpena talde fiskaleko sozietate nagusiak bidali behar du, eta talde fiskaleko entitate guztien itsasontzi guzti-guztiak sartu beharko dira bertan, aurreko zenbakian azaldutakoarekin bat.
3. Jakinarazpena egiten duen entitateak pleitamenduan hartutako itsasontziak ere sartu ahal izango dira araubidean. Nolanahi ere, pleitamenduan hartutako ontzien tonaje garbia ezin da izan entitatearen edo araubidea aplikatzen zaion talde fiskalaren itsasontzidi guztiaren tonajearen %75 baino handiagoa; muga hori gainditzea dakarten itsasontziak hortik kanpo geratuko dira.
4. Jakinarazpenarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) Araubidea aplikatuko zaien entitateen jardueren identifikazioa eta deskribzioa.
- b) Egiaztatzea itsasontziak zer titulu dela bide erabiltzen edo erabiliko diren; egiaztatzea zer lurralde-eremutan egingo den itsasontzior kudeaketa estrategikoa eta komertziala; egiaztatzea zein den itsasontzien bandera, eta egiaztatzea, azkenik, itsasontziak Zergari buruzko Foru Arauko 70. artikuluan ageri diren jardueretara afektatuta daudela.

40. artikulua. Jakinarazpena egiteko epeak, luzapena, uko egitea eta uko egiteagatik edo ez-betetzeagatik ezar daitezkeen zehapena.

1. Araubide honek ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu eta hurrengo bi hileetan araubidea hautatzeko jakinarazpena bidali behar dio zergadunak Zerga Administrazioari; 10 urterako balioko du aukera horrek.
2. Lehenengo jakinarazpenaren indarraldia amaitutakoan, araubidea aplikatzea luzatzeko jakinarazpenak egin ditzake zergadunak; luzapen bakoitza beste 10 urterako izango da. Luzapenaren jakinarazpena hark ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu eta hurrengo bi hileetan bidali behar da.
3. Baldin eta jakinarazpena bidali ondoren, hots, araubidea aplikatzen ari dela, zergadunak araubidea aplikatzeko betekizunak betetzen dituzten itsasontziak eskuratu, alokatu edo pleitamenduan hartzen baditu, beste jakinarazpen bat aurkeztu beharko du itsasontzi horiei buruz, artikulua honetan xedatutakoa kontuan hartuz. Jakinarazpen horren indarraldia araubidea aplikatzen hasteko bidalitako jakinarazpenaren indarraldia amaitu artekoa izango da.
4. Zergadunak ez badu araubidea gutxienez 10 urtean aplikatzen, araubide horretan tributatzeari uko egiten diola ulertuko da. Zergadunak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dio uko egiten diola araubideari, ukoak ondorioak sortu behar dituen zergaldia amaitu eta hurrengo bi hileetan, hain zuzen; hala gertatzen denean, ezingo da beste jakinarazpenik egin araubidea aplikatu den azken urtearen hurrengo bost urteetan.
5. Zergadun batek ez badu betetzen Zergari buruzko Foru Arauko 53. eta 72. artikuluetan araututako araubidean ezarritako betekizunen bat, galdu egingo du araubidea aplikatzeko eskubidea, eta, ez-betetzea gertatzen den ekitaldian, zergaldiko kuotarekin batera ordaindu beharko ditu araubide hau aplikatu duen ekitaldi guztietan araubide orokorra aplikatuz gero ordaindu beharko zituzkeen kuota guztiak; dagozkion berandutze-interes, errekaru eta zehapenen kalterik gabe. Orobat, zergadunak ezingo du araubide hau hautatzeko beste jakinarazpenik egin ez-betetzea gertatu den zergaldia hasi denetik aurrera zenbatutako hurrengo bost urteetan.

Zenbaki honetan ezarritakoa ez da aplikatuko ez-betetzea gertatu bada zergadunari leporatu behar ez zaizkion salbuespenezko inguruabarregatik edo ezinbesteko arrazoiengatik.

41. artikulua. Espainiako zein Europako ekonomia-intereseko elkartzeen eta aldi baterako enpresa-elkarteen betebeharrak.

1. Zergari buruzko Foru Arauaren VI. tituluko III. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikatu ahal zaien Espainiako eta Europako ekonomia-intereseko elkartzeek, zergaren autolikidazioarekin batera, zerrenda bat aurkeztu behar dute; bertan, zergaldiko azken egunean elkartzeko bazkide diren Espainiako egoiliarak edo bazkide izateari dagozkion eskubideak dituzten pertsona edo entitateak agertuko dira. Zerrenda horretan datu hauek agertu behar dira:
 - a) Bazkideen edo bazkide izateari dagozkion eskubideak dituzten pertsona edo entitateen identifikazioa, zerga-egoitza eta partaidetza- portzentajea.

Horrenbestez, identifikatu beharko dute, eta bereiz eman, zein bazkidek egin dituzten - Kontabilitateko irizpideak aplikatuta- ezaugarri berezidun ondare-tresna gisa kalifikatu behar diren ekarpenak.

- b) Kontzeptu hauengatik egotzi beharreko kopuruen zenbateko osoa:
 - 1.a. Kontabilitate-emaiza.
 - 2.a. Interes ekonomikoko elkartzean zergaldian kenkari gisa aplikatu ez diren gastu finantzario garbiak, zergari buruzko foru-arauaren 25.bis artikulua arabera betiere.
 - 3.a. Zerga-oinarria.
 - 4.a. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkariaren oinarria, errentak sortu dituen entitatearen mota eta haren gaineko partaidetza-portzentajea.
 - 5.a. Zergari buruzko foru-arauaren V. tituluko III. kapituluaren ezarritako kenkariaren oinarria eta ekonomia-intereseko elkartzeari aplikagarriak zaizkion gainerako kenkariena, salbu eta zergari buruzko foru-arauaren 62. artikulutik 64 artikulura ezarritako kenkariaren oinarria, hain zuzen, bazkideak elkartzeari egindako ekarpenak kontabilitate-irizpideen arabera ezaugarri bereziko ondare- tresna gisa kalifikatu behar diren kasurako.
 - 6.a. Ekonomia-intereseko elkartzeari dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak.
 - c) Horrenbestez, identifikatu beharko dute, eta bereiz eman, zein bazkidek egin dituzten —Kontabilitateko irizpideak aplikatuta— ezaugarri berezidun ondare-tresna gisa kalifikatu behar diren ekarpenak.
 - d) Erreserben kargura banatutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak. Sozietateari araubide berezi hau aplikatu ezin izan zaion ekitaldietakoak berezi behar dira.
2. Ekonomia-intereseko elkartzeek euren bazkideei edo bazkide izateari dagozkion eskubideak dituzten pertsona edo entitateei jakinarazi beharko diete zer zenbateko oso egotziko diren eta bakoitzari aurreko zenbakiko b) letran ezarritako kontzeptuak direla-eta zer zenbateko egotziko zaion ere bai, baldin eta zenbateko horiek egozgarriak badira zerga honen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren arabera.

Gainera, bazkideen ekarpenak kontabilitate-irizpideen arabera ezaugarri berezidun ondare-tresna gisa kalifikatu behar badira, bazkideei komunikatu behar diete zein den haiek elkartzearen kapitalari ordaindutako ekarpenen zenbatekoa.

3. Dibidenduek eta mozkinetako partaidetzek ez tributatzeko, Zergari buruzko Foru Arauko 73. artikuluko 3. zenbakiko lehenengo paragrafoan ezarritakoarekin bat, elkartzeek jarraian adieraziko den informazioa eman behar dute urteko kontuen memorian:
- a) Araubide orokorrean tributatu zuten zergaldietako erreserbei aplikatutako mozkinak.
 - b) Araubide berezian tributatu zuten zergaldietako erreserbei aplikatutako mozkinak. Berezi egin behar dituzte, alde batetik, egoitza Espainiako lurraldeko egoiliar diren bazkideei zegozkienak, eta, bestetik, Espainiako lurraldean egoiliar ez diren bazkideei zegozkienak.
 - c) Dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak erreserben kargura banatu badira, zein erreserba aplikatu den zehaztu behar dute, hau da, aurreko a) eta b) letretan aipatutako hiruretatik zein aplikatu den mozkin motaren arabera.

4. Aurreko zenbakian adierazten diren urteko memoriako aipamenak berdin-berdin egin behar dira, zenbaki horretako b) letran aipatutako erreserbak dauden bitartean, nahiz eta entitateak araubide berezian tributatu ez.
5. Artikulu honetako 3. eta 4. zenbakietan ezarritako informazio-betebeharrak berdin galdutako zaizkie 3. zenbakiko b) letran aipatutako erreserben titulartasuna duten hurrengo erakundeei ere.
6. Artikulu honetako aurreko zenbakietan ezarritakoak -aplikatu beharrekoa den heinean-Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko III. kapituluan ezarritako araubide berezian dauden aldi baterako enpresa-elkarteei ere eragingo die, zergaldiko azken egunean Espainiako lurraldeko egoiliar diren enpresa elkartekideei dagokienez.

41 bis artikulua. Ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideei zenbatekoak egozteko muga.

1. Zergari buruzko Foru Arauaren 73. artikuluko 1. zenbakiko b) letran muga bat ezartzen da ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideentzat, bazkideok elkartzeari egindako ekarpenak kontabilitate- irizpideen arabera ezaugarri berezidun ondare-tresna gisa kalifikatu behar diren kasurako; bada, muga hori modu orokorrean aplikatuko da bazkideek elkartzean duten partaidetza mantentzen duten zergaldi guztietan.
2. Zergaldi batean zenbateko batzuk egotzi gabe geratu badira aurreko zenbakian aipatutako mugaren ondorioz, egotzi gabeko horiek hurrengo zergaldietan egotzi ahal izango dira, zergaldi bakoitzean errespetatu beharreko muga errespetatuta betiere.

42. artikulua. Zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzea eta araubide horretan dauden entitateen informazio-betebeharrak.

1. Zerga-baterakuntzaren araubidea hautatzen dutenek Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote.

Jakinarazpenean datu hauek eman behar dira:

- a) Talde fiskaleko sozietateen identifikazioa.

Espainiako lurraldeko egoiliar ez izanik taldeko sozietate nagusi diren erakundeen establezimendu iraunkorrei dagokienez, talde fiskaleko sozietateak identifikatzeaz gainera establezimendu hori atxikita dagoen Espainiako lurraldeko egoiliar ez den erakundea ere identifikatu behar da.

- b) Taldeko sozietateek zerga-baterakuntzaren araubidea hautatzeko hartu dituzten erabakien kopiak.
- c) Sozietate nagusiak talde fiskaleko sozietateetako bakoitzean zuzenean edo zeharka dituen partaidetza-portzentajeak eta haien eskuraketa-egunak.

Sozietate nagusiak adierazi behar du bete egiten direla Zergari buruzko Foru Arauko 85. artikuluan ezarritako betekizunak.

2. Zerga Administrazioak sozietate nagusiari jakinaraziko dio zer zenbaki eman zaion talde fiskalari.

43. artikulua. Honako hauen araubidearen aplikazioa: bat-egiteak, zatiketak, aktiboen ekarpenak, balore trukeak, aktibo eta pasibo osoaren lagapenak, eta Europako sozietate baten edo kooperatiba-sozietate baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko VII. kapituluan ezartzen den araubidea aplikatu ahal izateko, araubidea aplikatzeko aukera egin behar da, foru arau horretako 114. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen denarekin bat.
2. Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio aukera hori egin dela, artikuluko honetan ezartzen den eran.
3. Aukera hori jakinarazteko hiru hilabeteko epea dago, eragiketaren eskritura publikoa inskribatu den egunetik aurrera.

Inskripzioa ez bada beharrezkoa, epe hori eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa egilesten den egunetik aurrera zenbatuko da, eta gainera, Zergari buruzko Foru Arauko 114. artikuluko 3. zenbakian ezartzen denez, eskrituran nahitaez adierazi beharko da araubidea aplikatzeko aukera egin dela.

Sozietatearen egoitza aldatzeko eragiketetan, berriz, jakinarazpena egin behar da, eragiketa hori dokumentatzeko eskritura publikoa edo agiri baliokidea sozietatearen egoitza berria dagoen estatu kideko erregistroan inskribatu ondorengo hiru hilabeteetan egin ere.

4. Bat-egite edo zatiketa eragiketak direnean, aurreko zenbakian aipatzen den jakinarazpena entitate eskuratzailerik egin beharko dute.

Bat-egite edo zatiketa eragiketak egiten badira, baina entitate eskuratzailerik edo entitate eskualdatzailerik zerga-egoitza ez badago Espainian eta eragiketa horietan ez bada aplikatu behar Zergari buruzko Foru Arauko 102. artikuluan ezartzen den araubidea, entitate eskualdatzailerik herrialde horretan establezimendu iraunkorrik ez izateagatik, bada, orduan, eragindako bazkide egoiliarrek aukeratuko du araubide berezia aplikatzea. Izan ere, aukera hori egiteko, hala adierazi behar du zerga hau edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga autolikidatzeko ereduari.

5. Diruzkoak ez diren ekarpenak egiten direnean eta aktibo eta pasibo osoa lagatzen denean, entitate eskuratzailerik edo eskuratzailerik dagokie jakinarazpena aurkeztea.

Entitate horien zerga-egoitza ez dagoenean Espainian eta herrialde horretan establezimendu iraunkor baten bidez aritzen ez direnean, pertsona edo entitate eskualdatzailerik izango du jakinarazteko betebeharra.

6. Baloreak trukutzen direnean, entitate eskuratzailerik aurkeztu behar du jakinarazpena.

Baloreak eskuratzeko dituen entitatea eta baloreak trukatzeko dituen entitate partaidetua ez badira Espainian egoiliarrek, eragindako bazkide egoiliarrek aukeratuko du araubide berezia aplikatzea. Izan ere, aukera hori egiteko, zerga hau edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga autolikidatzeko ereduari dagokion laukian hala adierazi behar du.

7. Sozietatearen egoitza aldatzeko eragiketetan, sozietateak berak aurkeztu behar du jakinarazpena.
8. Jakinarazpen horretan, eragiketetan parte hartzen duten entitateen identifikazio-datuak adierazi behar dira, eta eragiketa bera ere deskribatu behar da. Behar denean, jakinarazpenari honako dokumentazio hau erantsi behar zaio:
 - a) Bat-egite edo zatiketa kasuetan, Merkataritza Erregistroan bat-egite edo zatiketari buruz inskribatutako eskritura publikoaren kopia, eta, era berean, merkataritza arauetara jarraituz eskritura erregistroan inskribatzeko hari derrigorrez erantsi behar zaizkion beste dokumentuen kopia.

Inskripzioa ez bada beharrezkoa, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren kopia aurkeztu behar da. Gainera, Zergari buruzko Foru Arauko 114. artikuluko 3. zenbakian ezartzen denez, eskrituran nahitaez adierazi beharko da araubidea aplikatzeko aukera egin dela.

- b) Diruzkoak ez diren ekarpenak egiten direnean eta aktibo nahiz pasibo osoa lagatzen denean edo baloreak trukatzen direnean, kapital soziala eratu edo zabaldu izanaren eskritura publikoaren kopia, eta merkataritza arauari jarraituz eskriturari derrigorrez erantsi behar zaizkion beste dokumentuen kopia.

Kapital soziala eratu edo zabaltzeko eskritura ez bada beharrezkoa, eragiketa dokumentatzen duen eskrituraren kopia aurkeztuko da.

- c) Aurreko eragiketak akzioak erosteko eskaintza publiko baten bidez burutu badira, eskaintza horri dagokion informazio-liburuxkaren kopia ere aurkeztu beharko da.
 - d) Sozietatearen egoitza aldatzeko eragiketetan, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren edo agiri baliokidearen kopia aurkeztuko da, bai eta aldaketa hori egoitza aldatuko den estatu kideko erregistroan inskribatzeko derrigorrezkoak diren beste agirien kopia ere.
9. Zergari buruzko Foru Arauko 107. artikuluko 3. zenbakiko bigarren lerroaldean aipatutako kasuetan, entitate eskuratzailerak jarraian adieraziko den informazioa aurkeztu behar du, eskuraketa-balioaren eta ondare garbiaren arteko diferentziaren zatia zerga-oinarrian ez sartzeari buruz xedapen horretan ezartzen dena aplikatzen duen ekitaldietako zerga honen autolikidazioarekin batera. Hona hemen informazio hori:
- a) Entitate eskualdatzailearen identifikazioa, eta haren gaineko partaidetza-portzentajearena.
 - b) Entitate eskualdatzailearen partaidetzen eskuraketa-balioa eta -data, bai eta partaidetza horiei dagokien funts propioen balioa ere, urteko kontu homogeneizatuen bidez zehaztuta.
 - c) Partaidetzen eskuraketa-prezioaren eta partaidetza horiei entitatea desegin zen datan funts propioetan zegokien balioaren arteko diferentzia badago, horri dagokionez justifikatu egin behar da zein irizpide erabiliko diren, batetik, diferentzia horren balioespena- eta denbora-homogeneizaziorako, eta, bestetik, diferentzia hori entitate eskualdatzailearen ondasun eta eskubideei egozteko.

44. artikulua. Higiezin errentamenduaren arloko jarduera kualifikatua duten entitateen araubide berezia aplikatzea aukeratzea.

Higiezin errentamenduaren arloko jarduera kualifikatua duten entitateen araubide berezia aplikatzea aukeratu nahi bada, Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaio.

Jakinarazpen horretan zehaztu behar da aktiboko zer elementu afektatzen diren Higiezin errentamenduaren arloko jarduerara, eta datu esanguratsu guztiak jaso behar dira, araubide berezia aplikatzeko betekizunak betetzen direla egiaztatu ahal izateko.

Zergari buruzko Foru Arauko 115. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren entitateen kasuan, aurreko datuez gainera, zehaztu behar da entitateak badituela araubide berezia aplikatu ahal izateko galdatzen diren langileak, eta bakoitzak betetzen dituen eginkizunak eta entitatearekin lotzen dituen harremana espezifikatu behar dira.

Zergari buruzko Foru Arauko 115. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren entitateen kasuan, higiezinak zehaztu behar dira eta adierazi behar da zein den haien azalera eraikia, metro koadrotan, eta zer proportzio betetzen duten etxebizitzekin batera errentatzen diren eraikin bereko garaje-plaza eta eranskinek.

V. TITULUA ZERGAREN KUDEAKETA

I. KAPITULUA ESKABIDEAK IZAPIDETU ETA ONESTEKO PROZEDURA OROKORRA

45. artikulua. Eskabideak izapidetu eta onesteko prozedura orokorra.

1. Eskabidean, eskaeraren xede den gaiarekin lotura zuzena duten datu guztiak jaso behar dira.
2. Eskabidea kasu bakoitzean ezarritako epearen barruan aurkeztuko da, edo, eperik ez badago, onetsitako irizpideek ondorioak sortu behar dituzten eragiketak egin ondoren-ondorengo hiru hilabeteetan.

Zergadunak eskubidea du berak egindako eskabidea utziesteko.

3. Administrazioak beharrezko diren datu, txosten, aurrekari eta frogagiri guztiak eskatu ahal izango dizkio zergadunari. Sei hilabeteko epea izango du ebazpena emateko. Epe hori eskabidea aurkezten den edo eskatutako informazio gehigarria jasotzen den egunean hasiko da zenbatzen.

Zergadunak entzunaldiaren izapidearen aurreko prozeduraren edozein unetan aurkeztu ahal izango ditu berak egoki iritzitako alegazio, agiri eta frogagiriak.

4. Prozedura instruituta, eta ebazpen-proposamena idatzi aurre-aurretik, espedientea zergadunari azalduko zaio. Zergadunak hamabost eguneko epea izango du berak egoki iritzitako alegazio, agiri eta frogagiriak aurkezteko.

Entzunaldiaren izapidea ez da beharrezkoa izango baldin eta prozeduran jasota dauden eta kontuan hartzen diren egitate bakarrek horiek badira eta alegazio eta froga bakarrek zergadunak adierazitakoak badira.

5. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena arrazoitua izan behar da.

Zergadunak Zerga Administrazioari eskatzen badio berak proposatutako plan edo irizpide bat onesteko, administrazioak hau ebatz dezake:

- a) Zergadunak hasieran proposatutako plan edo irizpidea onestea.
 - b) Zergadunak prozeduraren barruan proposatutako plan edo irizpidea barik beste bat onestea.
 - c) Zergadunak proposatutako plan edo irizpidea ezestea.
6. Aurreko 3. zenbakian aipatzen den epea igaro bada, onetsizat hartuko da zergadunak egindako eskabidea.
 7. Artikulu honetan ezarritakoa orokorrean aplikatuko da. Hala ere, kontuan hartuko dira erregelamendu honetan arlo bakoitzerako ezarritako berezitasunak.

II. KAPITULUA ERAKUNDEEN INDIZEA

46. artikulua. Entitateen indizea.

Zergari buruzko Foru Arauko 118. artikuluan aipatzen den entitateen indizea Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudian ezartzen direnaren arabera

aurkeztu beharreko zentsu-aitorpenetan jasotako datuekin osatuko da (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Entitateen indizeko alta, aldaketa edo baja araudi horretan ezarritako prozedurekin bat egingo da.

47. artikulua. Entitateen indizeko alta berritzea eta bazterreko oharra ezereztea.

Baldin eta, Zergari buruzko Foru Arauko 120. artikuluan xedatutakoarekin bat, entitate bati behin-behineko baja eman bazaio Entitateen indizean eta baja horren bazterreko oharra egin bada dagokion erregistro publikoan, Ogasuneko zuzendari nagusiak erabakiko du ea entitate horri berriro alta eman eta bazterreko oharra ezereztatu behar den, entitate interesdunak hala eskatuta betiere, eta entitate horrek egunean baditu bere zerga-betebehar guztiak.

III. KAPITULUA AUTOLIKIDAZIOA AURKEZTEAN EGIN BEHAR DIREN AUKERAK

48. artikulua. Egindako aukerak zuzentzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluko 2. zenbakiko bigarren lerroaldean ezarritakoa gorabehera, zergadunek zergaren autolikidaziorako borondatezko epea amaitu ondoren zuzendu ahal izango dituzte egindako errakuntza aritmetikoak edo egitezkoak, eta betiere Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badie.

Artikulu honetan ezartzen denerako, errakuntza aritmetikoak edo egitezkoak zuzentzeak ezin du eragin %50 baino gehiago aldatzea zergaren borondatezko autolikidazio-epean aurkeztutako autolikidazioetan jasotako zenbatekoak, ez eta zerga-oinarria murriztea dakarten zenbatekoak egiaztatzea edo zergaren borondatezko aitoren-epean aurkeztutako autolikidazioetan jasota ez zeuden kontzeptu edo eragiketen ondorioz kuotan kenkariak aplikatzea ere.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, zergadunek edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte euren autolikidazioak, zuzenketa hori zerga-oinarria edo zergaren kuota murriztea ekarri zuten aukerak ezerezteko bada, hartarako betekizunak betetzen ez dituztela jakin badakite eta betiere Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin ez badie.

49. artikulua. Autolikidazioa aurkeztu gabe egotea, eta beste egoera batzuk.

1. Zergaren borondatezko autolikidaziorako epean autolikidaziorik aurkeztu ez duten zergadunek ezin izango dituzte inola ere erabili Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluko 2. zenbakiko bigarren lerroaldean aipatzen diren aukerak.

Zergari buruzko Foru Arauko 128. artikuluan jasotzen diren gainerako aukerak ere ezingo dituzte erabili, Zerga Administrazioak errekerimendurik egin badie.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa zergaren autolikidazioan zerga-oinarri positiborik aitortu ez duten zergadunei ere aplikatuko zaie, baina soilik, tributuen arloko kudeaketa- edo ikuskapen-prozedura baten ondorioz, Zerga Administrazioak zergaren zerga-oinarria positiboa dela ezarri duen kasuetan.

IV. KAPITULUA KONTURAKO ORDAINKETAK

50. artikulua. Atxikipenari eta konturako sarrerari lotutako errentak.

1. Honako hauen gaineko atxikipena egin behar zaio jasotzaileari, Sozietateen gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa:

- a) Edozein entitate motaren funts propioetan parte hartzeagatik eta hirugarren batzuei kapital propioak lagatzeagatik datozen errentak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 36. eta 37. artikuluetan aipatuta dauden gainerako errentak.
 - b) Joko, lehiaketa, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartzearen ondorioz ematen diren sariak, ondasun, produktu edo zerbitzu zehatz batzuen eskaintzari, sustapenari edo salmentari lotuta egon ala ez.
 - c) Beste sozietate batzuetako administratzaile- edo aholkulari-karguen ondorioz lortutako kontraprestazioak.
 - d) Irudiaren ustiapenerako eskubidea lagatzetik edo irudia erabiltzeko onarpen edo baimenetik datozen errentak, baldin eta errenta horiek, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko xedatutakoarekin bat, kapital higigarriaren etekinak badira.
 - e) Hiri-higiezin errentamendutik edo azpierrementamendutik datozen errentak, ekonomi ustiapenetatik datozen sarrerak izanik ere.
 - f) Inbertsio kolektiboko erakundeek kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errentak.
2. Kontratu berean, zerbitzu-emateak edo ondasun higiezin lagapenez gainera Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 37. artikuluan sartuta dauden ondasun eta eskubidetako batzuk lagatzen badira, zenbateko osoaren gainean egin beharko da atxikipena.

Kontratu berean, landa-finken errentamendu, azpierrementamendu edo lagapenez gainera beste ondasun higigarri batzuen ere sartzen bada, ez da atxikipenik egingo. Hala ere, atxikipena egingo da errentatu edo lagatzen dena negozioa edo meatzea bada.

- 3. Jasotzaileari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren konturako sarrera egin beharko da aurreko ataletako errentak direla eta, haiek gauzaz ordaindu edo abonatzen direnean.
- 4. Atxikipenak eta konturako sarrerak Bizkaiko Foru Aldundian ordaindu beharko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudian horretarako ezarritako irizpideen arabera.

51. artikulua. Atxikipenak eta konturako sarrerak egin behar diren salbuespenak.

Ez da atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar honako hauek direla eta:

- 1. Diru-merkatuan esku hartzeko tresna erregulatuak diren Espainiako Bankuak jaulkitako baloreen etekinak nahiz Altxorreko Letren etekinak.

Hala ere, kreditu-etxeek eta gainerako finantza-erakundeek beren bezeroekin Altxorreko letren gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten badituzte, kreditu-etxe eta gainerako finantza-erakundeok atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinak direla eta.
- 2. Estatuak kreditu ofizialari emandako maileguren kontraprestazio bezala Altxorraren aldeko eskubidea osatzen duten interesak.
- 3. Espainiako Bankuko erregistro berezietan inskribatuta dauden eta egoitza Espainiako lurraldean duten kreditu-erakundeek eta kredituko finantza-establezimenduen sarrera diren maileguren komisioak eta interesak.

Aurreko salbuespena ez zaie aplikatuko obligazioen, bonuen edo nazioko edo atzerriko erakunde publikoek eta pribatuek jaulkitako beste titulu batzuen interes eta etekinei, baldin eta obligazio, bonu edo titulu horiek erakundeen balore-zorroa osatzen badute.

4. Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietateak kapitalaren gehiengoa duen sozietateekin egiten dituen, mailegu-, kreditu- edo aurrerakin-eragiketa aktibo eta pasiboen interesak. Salbuespen hori ezin da zabaldu zedulen, obligazioen, bonuen eta antzeko tituluen interesetara.
5. Batetik, Balore Merkatuari buruzko 1998ko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 63. artikuluko 2. zenbakiko b) letran aipatzen diren balore-erosketa edo -salmentarako eragiketei lotuta emandako kredituen ondorioz balore-sozietateek jasotako interesak; bestetik, inbertsio-zerbitzuetako enpresek jasotako interesak, 2008ko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuko 19. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren mailegu- edo gordailu eragiketa aktiboak direla-eta (errege-dekretu hori inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten gainerako entitateen araubide juridikoari buruzkoa da, eta zati batean aldatzen du Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamendua, 2005eko azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsi zena).

Era berean, ez da atxikipenik egin beharko balore-agentziek eta -sozietateek finantza-gerokoen eta -aukeren merkatuen kide bezala jarduteko eraturako bermeen kontraprestazio gisa jasotako interesen gainean; horretarako, baina, kideok 2010eko urriaren 15eko 1282/2010 Errege Dekretuko IV. eta V. kapituluetan ezarritako eran eratu behar dira (errege-dekretu horrek gerokoen, aukeren eta beste finantza-tresna deribatu batzuen bigarren mailako merkatu ofizialak arautzen ditu).

6. Obligazioak akzio bihurtzeko primak.
 7. Akzio edo partaidetzen jaulkipen-prima banatetik datozen errentak .
 8. Egoitza Espainian duen sozietate nagusi batek egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan duten bere sozietate filialetatik jasotako mozkinak, erregelamendu honetako 52. artikuluko 2. zenbakian ezarritako atxikipenari dagokionez, baldin eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 14. artikuluko 1. zenbakiko g) letran ezarritako betekizunak betetzen badira.
 9. Hiri-higiezin errentamendutik edo azpierrementamendutik datozen etekinak, kasu hauetan:
 - a) Etxebizitza enpresek beren enplegatuentzat alokatzen duenean.
 - b) Errentariak errentatzaile berari ordaindutako errentak urteko 900 euro baino gehiago ez izatea.
 - c) Errentatzailearen jarduera 1991ko apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemaileak onartzen dituen Ekonomi Jardueren gaineko Zergako tarifen lehen ataleko 861. taldeko epigrafeetako batean sailkatuta badago, edo, bestela, haren jarduera hiri-ondasun higiezinak errentan edo azpierrementan emateko ahalbidetzen duen beste edozein epigrafeetan sailkatuta badago, eta, gainera, errentan edo azpierrementan ematen diren ondasun higiezinak katastro-balioari 861. taldeko epigrafeetan kuota kalkulatzeko ezarritako erregelak aplikatuz gero ateratzen den kuota zero ez bada.
- Ondorio horietarako, errentatzaileak betekizun hori betetzen duela frogatu beharko dio errentariari, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru agindu bidez ezartzen duen bezala.
- d) Etekinak Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren finantza-errentamenduko kontratuen ondoriozkoak izatea, kontratuon xedea hiri-ondasun higiezinak badira.

10. Espainiako edo Europako ekonomia-intereseko elkartze baten eta beraren bazkideen artean galda daitezkeen etekinak eta aldi baterako enpresa-elkarte baten eta beraren enpresa kideen artean galda daitezkeenak.
11. Hipoteka-partaidetzen, maileguen eta titulizazioko funtsen sarrera osatzen duten beste eskubide batzuen etekinak.
12. Egoitza Espainian duten finantza-establezimendu eta kreditu-etxeen atzerriko establezimendu iraunkorrek ordaindu edo abonaturako kanpoko kontuen etekinak.
13. Espainiak izenpetutako nazioarteko tratatu batean xedatutakoari jarraiki zerga honetan salbuetsita dauden entitateei ordaindutako etekinak.
14. Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko VI. kapituluan araututako zerga-baterakuntzaren araubide berezian tributatzen duen talde bateko sozietateek elkarri ordaintzen dizkioten dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, interesak eta gainerako etekinak.
15. Espainiako eta Europako ekonomia-intereseko elkartzeek eta aldi baterako enpresa-elkarteek ematen dituzten dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, zergaren arau orokorren arabera tributatu behar dutenak izan ezik, baldin eta dibidendu edo mozkinetako partaidetza horiek zerga-oinarriaren egozpena jasan behar duten bazkideei badagozkie eta entitatea Zergari buruzko Foru Arauko VI. tituluko III. kapituluko araubide berezian egon den zergaldietan sortu badira.
16. Zergari buruzko Foru Arauko 12. artikuluan aipatutako entitate salbuetsiek lortutako errentak, bai eta Sozietateen gaineko Zergari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurralde historikoetan, Nafarroako Foru Komunitatean eta araubide erkideko lurraldean indarrean dauden manu baliokideetan aipatzen diren entitate salbuetsiek lortutakoak ere.

Entitate batek zuzenbidean onartutako frogabideetako edozein erabil dezake entitate salbuetsia dela egiaztatzeko. Zerga Administrazioak ezarri ahal izango ditu entitate bat salbuetsizat jotzeko bideak eta modua.

Zenbaki honetan aipatzen diren entitate salbuetsiek Estatuaren Zor Publikoko tituluen ondorioz jasotako etekinak direla-eta atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharretik salbuesteko prozedura ere ezarri ahal izango da.

17. Zergari buruzko Foru Arauko 33. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, bai eta aseguru orokorren mutuek, gizarte-aurreikuspeneko erakundeek, elkarrekiko berme-sozietateek edo elkarteek banatutakoak.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, entitate jasotzaileak atxikipena egin behar duen entitateari jakinarazi beharko dio ea artikuluko horretan ezarritako betekizunak betetzen diren. Jakinarazpen horretan sartuko dira, jasotzailearen identifikazio-datuez gain, betekizun horiek betetzen direla justifikatzeko agiriak.

18. Zerga honen zergadunek lortutako errentak, finantza-aktiboetatik datozenak, baldin eta honako betekizunok betetzen badituzte:

- a) Kontuko idatz-oharren bitartez adierazita egotea.
- b) Espainiako bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatzea.

Hala ere, kreditu-etxeek eta gainerako finantza-erakundeek beren bezeroekin finantza-aktiboen gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten badituzte, kreditu-etxe eta gainerako finantza-erakundeek atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinak direla eta.

Zenbaki honetan sartuta dauden baloreen interesak ordaintzen dituzten edo balore horien eskualdaketa, amortizazio edo itzulketan esku hartzen duten finantza-erakundeek kalkulatu

behar dute balorearen titularrari egotzi beharreko etekina, eta haren berri eman behar diete bai titularrari bai Zerga Administrazioari. Administrazio horri, gainera, lehen aipatutako eragiketetan esku hartzen duten pertsoneri dagozkien datuak eman behar dizkiote.

Halaber, Zerga Administrazioak bitartekotza- eta informazio-betebeharrak ezarriko ditu, printzipalaren eta kupoen negoziazio bereizia baimendu zaien Zor Publikoko baloreen bereizketa, eskualdaketa, berreraketa, itzulketa edo amortizazioa direla eta. Kasu horietan, Idatz-oharren bidezko Zor Publikoko Merkatuaren entitate kudeatzaileek titularrari egotzi beharreko etekina kalkulatu beharko dute, eta haren berri eman beharko diete bai titularrari bai Zerga Administrazioari. Administrazio horri, gainera, balore horien gaineko eragiketetan esku hartzen duten pertsoneri dagozkien informazioa eman beharko diote.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena ematen zaio zenbaki honetan arautu den atxikipenerako salbuespena betearazteko.

19. Aurreko artikuluko 1. zenbakiko b) letran aipatzen diren sariak, haien atxikipen-oinarria 300,51 euro edo txikiagoa bada.
20. Zerga honen zergadunek Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) herrialdeetako administrazio publikoek jaulkitako zorretik eta herrialde horietako merkatu arautuetan negoziatutako finantza-aktiboetatik lortzen dituzten errentak.

Hala ere, kreditu-etxeek eta gainerako finantza-erakundeek aurreko lerroaldean aipatzen diren finantza-aktiboaren gaineko eragiketetan oinarritutako kontuen kontratuak egiten badituzte beren bezeroekin, kreditu-etxe eta gainerako finantza-erakundeek atxikipena egin beharko dute kontu horien titularrek lortutako etekinak direla eta.

Zenbaki honetan sartuta dauden baloreen interesak ordaintzen dituzten edo balore horien eskualdaketa, amortizazio edo itzulketan esku hartzen duten finantza-erakundeek kalkulatu behar dute balorearen titularrari egotzi beharreko etekina, eta haren berri eman behar diete bai titularrari bai Zerga Administrazioari. Administrazio horri, gainera, lehen aipatutako eragiketetan esku hartzen duten pertsoneri dagozkien datuak eman behar dizkiote.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena ematen zaio zenbaki honetan arautu den atxikipenerako salbuespena betearazteko.

21. Inbertsio kolektiboko erakundearen kapitala edo ondarea ordezkatzeko errentak, honako hauek lortzen badituzte:
 - a) Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen bidez araututako inbertsio-funts finantzarioek eta kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek, baldin eta funts-sozietateon kudeaketa-erregelamenduetan edo estatutuetan ezarrita badago beren ondarearen %50, gutxienez, inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuen akzioetan edo partaidetzetan inbertitu behar dutela. Erakunde horiek Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduko 48 artikuluko 1. zenbakiko c) eta d) letretan zehaztutakoak izan behar dute (lege hori garatzeko erregelamendua 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onetsi zuen).
 - b) Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen bidez araututako inbertsio-funts finantzarioek eta kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek, baldin eta funts-sozietateon kudeaketa-erregelamenduetan edo estatutuetan ezarrita badago beren ondarearen %50, gutxienez, inbertsio-funts finantzario bakar batean inbertitu behar dutela. Inbertsio-funts finantzario bakar horrek Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduko 3 artikuluko 3. zenbakiko lehen tartekian arautzen diren inbertsio-funts finantzarioetako bat izan behar du (lege hori garatzeko erregelamendua 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak onetsi zuen). Inbertsio-politika hori inbertsio-funtsaren edo -sozietatearen konpartimentu bati badagokio, atxikipena eta

konturako sarrera egiteko salbuespena -zenbaki honetan aurreikusten dena- bakarrik aplikatuko zaie erakundearen ondaretik konpartimentu horri dagokion zatia osatzen duten inbertsioei.

Atxikipena egiteko obligaziotik 21. zenbaki honetan ezarritakoaren arabera salbuesteko, ezinbestekoa da inbertsioa egiten duen erakundea a) eta b) letretan adierazitako inbertsio motetarako Balore Merkatuen Batzorde Nazionalak ezarritako kategoriakoa izatea. Kategoria hori erakundearen informazio-liburuxkan jaso behar da.

22. Aseguru-erakundeek pentsio-planak aseguratzearen pentsio-funtsei ordaintzen dizkieten zenbatekoak.

Ez dago atxikipena egiteko betebeharririk pentsio-funts edo pentsio-plan inbertsiogileen partaidetzen itzulketa eta mobilizazioa dela-eta pentsio-funts irekiek ordaindutako kopuruengatik, Pentsio Plan eta Funtsei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera (testu bategin hori 2002ko azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen).

23. Bizitza-aseguruen hornidurak aktiboetan inbertituta egonez gero aktibo horiek aldatzetik lortzen diren errentak, aseguru-hartzaileak bere gain hartzen badu inbertsioaren arriskua.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatzeko, aktiboak eskualdatu edo itzultzen direnean, aseguru-erakundeek atxikipena egitera behartuta dauden erakundeei jakinarazi behar diete aseguru-kontratuan hartzaileak bere gain hartu duela inbertsioaren arriskua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 57. artikuluko 2. zenbakiko g) letran ezarritako betekizunak betetzen direla. Atxikipena egin behar duen erakundeak gorde egin behar du jakinarazpen hori, behar bezala sinatuta.

24. Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak aseguru-erakundeak likidatzeko eginkizunak betez nahiz erakundeon konkurso-prozeduretan zehar lortzen dituen errentak, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren Lege Estatutuaren testu bategineko 24. artikuluko 1. zenbakiko hirugarren lerroaldean ezarritakoarekin bat (testu hori 2004ko urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

25. Plan finantzario baten xede izan den aseguru kolektiboko kontratu batean bideratuta dauden pentsioengatik konpromisoak aldatzeagatik enpresa hartzaileetan agerian jartzen diren errentak, harik eta plan hori guztiz bete arte, Enpresek pentsioak direla-eta langileekin eta onuradunekin hartutako konpromisoak bideratzeari buruzko Erregelamenduko 36. artikuluko 5. zenbakiko bigarren lerroaldean ezarritakoarekin bat (erregelamendu hori 1999ko urriaren 29ko 1588/1999 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

26. Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen duen Erregelamenduko 79. artikuluan araututako funts eta sozietateetako partaidetzak edo akzioak itzulita edo eskualdatuta lortutako errentak (erregelamendu hori 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).

27. Kontrako alderdi zentralek urriaren 2ko 878/2015 Errege Dekretuaren 82. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa aplikatuz egindako balore-maileguengatik jasotzen dituzten ordainsariak eta eskubide ekonomikoen konpentsazioak (878/2015 Errege Dekretua, urriaren 2koa, kontuko idatzohar bidez adierazitako balore negoziagarrien konpentsazio, likidazio eta erregistroari buruzkoa, baloreen gordailuzain zentralen eta kontrapartida zentraleko erakundeen araubide juridikoari buruzkoa, eta bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartutako baloreen jaulkitzaileen gardentasun-eskakizunei buruzkoa).

Era berean, kontrako alderdi zentralek ez dute atxikipena egiteko betebeharririk izango, aurreko paragrafoan aipaturiko baloreen mailegu-eragiketak direla-eta ordaintzen dituzten ordainsari eta eskubide ekonomikoei dagokienez ere.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, dagokien atxikipena egin beharko zaie errenta horiei, errenta horien onuradunaren zerga pertsonalari buruzko arautegian ezarritakoarekin bat etorriz, eta, atxikipena egin behar bada, ordainketan bitartekotza egiten duen erakundeak egin beharko du; ondorioz, eragiketa hori ez da hartuko ordainketa-bitartekaritza soiltzat.

28. Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikuluko 2. zenbakian ezarritakoa aplikatuz agerian jartzen diren errentak.

52. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egitera behartuta dauden subjektuak.

1. Erregelamendu honetako 50. artikuluan ezarrita dauden errentak ordaintzen edo abonatzen dituztenek atxikipena edo konturako sarrera egin beharko dute; hain zuzen ere, hauek egin beharko dute:
 - a) Pertsona juridikoak eta gainerako entitateak, ondasun-erkidegoak, jabeen erkidegoak eta errenta-esleipenaren araubidean dauden entitateak barne.
 - b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunak, ekonomia-jarduerak egiten badituzte eta jarduera horietan aritzeagatik errentak ordaintzen badituzte.
 - c) Egoitza Espainian ez duten pertsona fisiko, juridiko eta gainerako erakundeak, Espainian establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten badute.
2. Ez da ulertuko pertsona edo entitate batek errenta bat ordaindu edo abonatzen duela baldin eta pertsona edo entitate horrek ordainketan bitartekaritza hutsa egiten badu, hots, ordainketa hori hirugarren baten kontura eta hark aginduta egiten badu. Hala ere, kasu honetan bai ulertuko da pertsona edo entitate horrek errenta ordaindu edo abonatzen duela: pertsona edo entitate hori Espainiako egoiliar direnen atzerriko baloreen gordailu-entitatea bada, edo pertsona edo entitate horrek bere kargura badu balore horien errenten kobrantza-kudeaketa. Gordailu-entitateek atxikipena egin beharko dute, baldin eta errenta horiek Espainian aurretik atxikipenik jasan ez badute.
3. Sarien kasuan, sariok ordaintzen dituen pertsona edo entitateak egin beharko du atxikipena edo konturako sarrera.
4. Finantza-aktiboei buruzko eragiketetan hauek egin behar dute atxikipena:
 - a) Finantza-aktiboen amortizazio edo itzulketan lortutako etekinetan: pertsona edo entitate jaulkitzailea. Hala ere, eragiketa horiek egitea finantza-erakunde bati aginduz gero, eragiketaz arduratzen den finantza-erakundeak egin beharko du atxikipena.

Jaulki ondoren finantza-aktibo bilakatu diren igorpen-tresnen kasuan, aktibo horiek beren epemugan kobratzeko aurkeztuko dituen fede-emaile publikoak edo finantza-erakundeak egin beharko du atxikipena.
 - b) Finantza-aktiboen eskualdaketa lortutako etekinen kasuan (aurreko letran aipatzen diren igorpen-tresnenak barne), eskualdaketa finantza-erakunde bat edo gehiagoren bitartez bideratzen bada: eskualdatzailearen kontura ari den bankua, kutxa edo finantza-erakundea.

Horretarako, hau hartuko da eskualdatzailearen kontura ari den banku, kutxa edo finantza-erakundetzat: eskualdatzaileak finantza-aktiboak saltzeko emandako agindua jasotzen duena.
 - c) Aurreko letretan jasotzen ez diren kasuetan, eragiketetan nahitaez parte hartu behar duen fede-emaile publikoa.

5. Estatuaren Zorrek baloreak eskualdatzen direnean, eragiketa horretan parte hartzen duen Idatz-oharren bidezko Zor Publikoko Merkatuaren entitate kudeatzaileak egin behar du atxikipena.
6. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzeko akzio edo partaidetza eskualdaketa edo itzulketa egiten direnean, pertsona edo entitate hauek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera:
 - 1.a. Inbertsio-funtsetako partaidetza itzulketa egiten denean, sozietate kudeatzaileek egin behar dute, salbu entitate merkaturatzaileen izenean eta partaideen kontura erregistratutako partaidetza kasuan; izan ere, kasu horretan, entitate merkaturatzaileek euren egin beharko dute atxikipena edo konturako sarrera.
 - 2.a. Kapital aldakorrek inbertsio-sozietate baten akzioak ez badute kotizatzen burtsan edo baloreak negoziatzeko bestelako merkatu edo sistema antolatuta batean eta sozietate horrek berrerosi egiten baditu zergadunak zuzenean edo merkaturatzaile baten bidez berri eskuratutako akzioak, sozietateak berak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera. Salbuespena: sozietate kudeatzaile batek esku hartu badu, orduan sozietate kudeatzaile horrek egin behar du atxikipena edo konturako sarrera.
 - 3.a. Atzerrian helbideratutako inbertsio kolektiboko erakundeen kasuan, entitate merkaturatzaileek edo erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatzeko ahalguztatuak bitartekariak egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera, itzulketa egiten dutenean, edo, modu subsidiarioan, baloreak harpidetza potentzialen artean merkaturatzeko edo banatzeko ardura duten entitateek.
 - 4.a. Zerbitzuak emateko askatasunez diharduten kudeatzaileen kasuan, 2004ko zergen arloko neurri buruzko 2004ko apirilaren 23ko 2/2004 Foru Arauko zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera izendatutako ordezkariak egin behar du atxikipena edo konturako sarrera.
 - 5.a. Aurreko zenbakietan ezarritakoarekin bat etorritik atxikipenik egin behar ez den kasuetan, konturako ordainketa egin beharko du eskualdaketa egin edo itzulketa lortzen duen bazkideak edo partaideak. Konturako ordainketa hori erregelamendu honetako 54. artikuluko 4. zenbakiko lehenengo lerroaldean, 55. artikuluko 3. zenbakian eta 56. artikuluko d) letran ezarritako arauarekin bat egin behar da.
7. Zerbitzuak emateko askatasunez diharduten aseguru-erakundeek Espainian egindako eragiketetan, Europako esparru ekonomikoko beste estatu kide batean helbideratuta dauden aseguru-erakundeek egin behar dute atxikipena edo konturako sarrera.
8. Atxikitza behartuta dauden subjektuek diru-sarrera Bizkaiko Foru Aldundian egiteko betebeharra onartuko dute; eta lehenengo bete gabe izan arren, bigarrena berdin bete beharko dute.

Etekin ordaintzen duen erakundea Foru Aldundia denean, etekin horri dagozkion atxikipena eta diru-sarrera zuzenean egingo dira.

53. artikulua. Finantza-aktiboaren kalifikazioa eta haiek eskualdatu, itzuli eta amortizatzeko zerga-betekizunak .

1. Etekin jarraian adieraziko diren zenbaterako bien arteko diferentzia eginez zehazten duten finantza-aktiboak hartuko dira etekin inplizituko finantza-aktibotzat. Zenbaterako horiek biak hauek dira: batetik, jaulkipenean, lehen aldiz merkaturatzean edo endosuan ordaindutako zenbaterako; bestetik, etekina, osorik edo zati batean, besteren errekurtsioak erakartzeko erabiltzen diren edozein balore higitzaileen bidez zehazten duten eragiketek mugaguneratzean itzultzeko konprometitutako zenbaterako.

Jaulkipen-, amortizazio- eta itzulketa-primak etekin inplizituen barruan sartuko dira.

Aldiz, ez dira etekin inplizituak izango finantza aktiboak merkaturatzeko hobariak edo primak, jaulkipen-prezioaren gainekoak, baldin eta halakoak ematea merkaturako jardunbideen barruan sartzen bada eta prima edo hobariok, osorik, sarrera badira xedapen honetan araututako finantza-aktiboak jaulki eta zirkulazioan jartzen jarduten duen bitarteko, bitartekari edo merkaturatzaile finantzarioarentzat.

Etekin inplizituko finantza-aktibotzat hartuko dira edozein igorpen-tresnatatik datozen etekinak, merkataritzako eragiketek sortutakoak barne, tresna hori endosatzen edo eskualdatzen den unetik aurrera, non eta endosua edo lagapena ez den gauzatzen hornitzaileen kreditu baten ordainketa gisa.

2. Etekin esplizituko finantza-aktibotzat hartuko dira interesak edo kapital propioak hirugarrenei lagatzearen ordainez itundutako beste edozein ordainsari sortzen dituztenak, baldin eta sortzen den kontraprestazioa ez bada sartzen aurreko zenbakian definitutako etekin inplizituen kontzeptuaren barruan.
3. Etekin mistoko finantza-aktiboen kasuan etekin esplizituko finantza-aktiboen araubidea aplikatuko da, baldin eta urtean sortzen den izaera horretako eskudirua jaulkipenaren unean indarrean zegoen erreferentzia-tasaren berdina edo hura baino handiagoa bada, nahiz eta jaulkipen-, amortizazio- edo itzulketa-baldintzetan era inplizituan beste etekin gehigarriren bat finkatu. Erreferentzia-tasa hori honako hau izango da hiruhileko natural bakoitzean: aurreko hiruhilekoan Estatuaren bonoekin egindako azken enkantean ateratako batez besteko prezio haztatu eta biribilduari dagokion tasa efektiboaren %80. Horretarako, lau urteko edo hortik beherako epea duten finantza-aktiboak badira, hiru urterako bonoen enkanteko prezioa hartuko da; lau eta zazpi urte bitarteko epea duten finantza-aktiboak badira, bost urterako bonoen enkanteko prezioa hartuko da; eta, azkenik, epe handiagoa duten finantza-aktiboak badira, hamar, hamabost edo hogeita hamar urterako obligazioen enkanteko prezioa hartuko da. Eperen baterako erreferentzia-tasa zehaztu ezin bada, prestatutako jaulkipenaren epeetik hurbilen dagoen epeari dagokion tasa aplikatuko da.

Zenbaki honetan ezartzen denerako, etekin aldakorra edo flotatzailea duten finantza-aktiboen jaulkipenetan hau izango da eragiketa horien interes efektiboa: eragiketaren barne-errendimenduko tasa. Dena dela, etekin esplizituak bakarrik hartuko dira kontuan, eta, gainera, tasa hori kalkulatzeko aintzat hartuko da sortutako etekinen behin-betiko zenbatekoa aldizka finkatzeko erabiltzen den parametroaren hasierako balioespena.

Nolanahi ere, etekin mistoko zor publikoa bada eta haren kupoiak eta amortizazio-zenbatekoa prezioen indize bat aintzat hartuta kalkulatzen badira, lehenengo lerroaldeko ehunekoa %40 izango da.

4. Eskualdaketaren, amortizazioaren edo itzulketaren unean atxikipena jasan behar duten etekin inplizituko finantza-aktiboak edo tituluak nahiz eta etekin esplizituko finantza-aktiboak besterentzeko edo haien itzulketa lortzeko, egiaztatu beharko da aktibo eta titulu horiek aurretik eskuratu direla eta eskuraketa horretan parte hartu dutela atxikipena egin behar duten fede-emaileek edo finantza-erakundeek, eta egiaztatu beharko da, halaber, zein izan den eragiketa horren prezioa.

Igorpen-tresna bat zirkulazioan jarri ostean finantza-aktibo bihurtzen denean, lehenengo endosu edo lagapena fede-emaile publikoaren edo finantza-erakundearen bitartez egin beharko da, endosu-hartzailea edo eskuratzaila bera finantza-erakundea denean izan ezik. Fede-emaile edo finantza-erakundeak agirian jasoko du aktibo hori finantza-aktiboa dela, eta haren lehenengo eskuratzaila edo edukitzailea identifikatuko du.

5. Aurreko zenbakian ezartzen denerako, pertsona edo erakunde jaulkitzaileak, haren kontura jarduten duen finantza-erakundeak, fede-emaile publikoak edo eskuratzailaren edo gordailugilearen kontura jardun edo esku hartzen duen finantza-erakundeak, kasu bakoitzean dagokionak, honakook egiaztatzen dituen agiria egin beharko du:
 - a) Eragiketaren data eta aktiboaren identifikazioa.

- b) Eskuratzaillearen izena.
- c) Eskuratzaille edo gordailugile horren identifikazio fiskaleko zenbakia.
- d) Eskuraketa-prezioa.

Hirukoizturik egingo den ziurtagiri horren bi ale eskuratzailari emango zaizkio, eta bestea ziurtagiria egiten duen pertsonaren edo erakundearen eskuetan geratuko da.

- 6. Finantza-erakundeek edo fede-emaile publikoek ez dute bitartekari bezala jardun edo esku hartuko aktiboan eskualdaketan, baldin eta eskualdatzaileak ez badu justifikatzen -artikulu honetan xedatutakoarekin bat- aktiboak eskuratu dituela.
- 7. Aurreko 4. zenbakian aipatzen diren finantza-aktiboen pertsona edo erakunde jaulkitzaileek ezin dute haien itzulketa egin, baldin eta edukitzaileak ez badu justifikatzen aktiboa aurretik eskuratu dituela; aurreko 5. zenbakian zehazten denaren arabera ziurtagiria erabili behar du horretarako.

Jaulkitzaileak edo eragiketaz arduratzen den finantza-erakundeak, aurreko lehen aldian ezarritakoaren arabera, ezin badiote itzulketa egin edukitzaileari, orduan kopuru horretako gordailu bat osatu beharko dute, eta agintaritzaren esku utzi.

Aktiboak berrerosi, erreskatatu, kitatu edo aldeztu aurretik amortizatzeko, finantza-erakundearen edo fede-emaile publikoaren bitartekotza edo esku-hartzea behar da. Aktiboa jaulki duen entitate edo pertsona eskuratzaille huts moduan geratuko da, titulua berriro zirkulazioan jarri gero.

- 8. Tituluaren edukitzaileak, titulua erosi zuela frogatzen duen ziurtagiria galduz gero, haren kopia bikoiztua emateko eskatu ahal izango dio ziurtagiria eman zion pertsona edo entitateari.

Pertsona edo entitate horrek jasota utziko du kopia hori jatorrizkoaren bikoiztua dela, bai eta agiria zein egunetan eman duen ere.

- 9. Dohaineko eskualdaketetan, eskuratzailleak subrogatu egingo du eskualdatzailearen eskuraketa-balioa, harik eta kostu horren justifikazio nahikoa lortu arte.

54. artikulua. Egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak kalkulatzeko oinarria.

- 1. Oro har, egin beharreko atxikipena kalkulatzeko oinarria galdagarria den edo ordaindu den kontraprestazio osoa izango da.
- 2. Finantza-aktiboen amortizazio, itzulketa edo eskualdaketaren kasuan, aktiboan amortizazio-, itzulketa- edo eskualdaketa-balioaren eta eskuraketa- eta harpidetza-balioaren arteko diferentzia positiboa izango da atxikipena kalkulatzeko oinarria. Eskuraketa egiaztatzeko ziurtagirian agertzen den balioa hartuko da eskuraketa-balioetatik. Ondorio horietarako, balio horretan ez dira eragiketaren gastu osagarriak gutxituko.

Eskualdatzaileari dagokion atxikipenaren kalterik gabe, erakunde jaulkitzaileak berak jaulkitako finantza-aktiborik eskuratzen badu, titulua gero edozein eratan eskualdatuz -amortizazioaren bidez izan ezik- lortzen duen etekinaren gainean egingo da atxikipena edo sarrera.

- 3. Atxikipena egiteko betebeharra erregelamendu honetako 50. artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezarritakoari jarraiki sortzen bada, sariaren zenbatekoa izango da atxikipena kalkulatzeko oinarria.
- 4. Atxikipena egiteko betebeharra erregelamendu honetako 50. artikuluko 1. zenbakiko f) letran ezarritakoari jarraiki sortzen bada, atxikipen-oinarria hau izango da: akzio edo partaidetzen eskualdaketa- edo itzulketa-balioaren eta eskuraketa-balioaren arteko

diferentzia. Horretarako, zergadunak lehenengo eskuratu zituen baloreak hartuko dira eskualdatu edo itzultitako baloretzat.

Aurreko lerroaldean baloreen antzintasunari buruz zehazten dena partaideen edo akziodunen erregistroan jasota dauden baloreei dagokienez aplikatuko du itzulketa edo eskualdaketa egiten duen entitate kudeatzaile edo merkaturatzaileak, honako kasu bi hauetan: batetik, Inbertsio kolektiboko erakundeen 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako inbertsio-funtsetako partaidetzen itzulketa bada eta partaidetza horientzat, lege horretako 40. artikuluko 3. zenbakia aplikatuz, partaideen erregistro bat baino gehiago badago; bestetik, atzerrian helbideratutako inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak edo partaidetzak eskualdatu eta itzultzen badira eta akzio edo partaidetza horiek Espainiako lurraldean merkaturatu edo banatu baziren.

5. Atxikipena egiteko betebeharra erregelamendu honetako 50. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoari jarraiki sortzen bada, ondasunaren merkaturako balioa izango da hura kalkulatzeko oinarria.

Horretarako, hau hartuko da merkaturako balioetat: ordaintzailearentzako eskuraketa-balio edo kostua %20 gehituz ateratzen dena.

6. Galdagarria den edo ordaindu den kontraprestazio osoa frogatzerik ez badago, Zerga Administrazioak hau konputatu ahal izango du haren zenbateko oso moduan: egin beharreko atxikipena kenduz benetan jasotakoa erakusten duen zenbatekoa.

55. artikulua. Atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharra sortzea.

1. Oro har, atxikipena eta konturako sarrera egiteko betebeharra sortuko da edo galdagarriak direnean atxikipenaren edo konturako sarreraren menpean dauden etekinak -diruzkoak eta gauzazkoak-, edo etekinok ordaindu edo ematen diren unean, ordainketa edo ematea lehenago gertatzen bada.

Interesei dagokienez, kontratuan edo eskrituran haiek likidatzeko edo kobratzeko jasotzen diren mugaegunetan izango dira galdagarriak interesak, edo kontuan beste era batera aitortzen direnean, nahiz eta hartzaileak haien kobrantza erreklamatu ez arren edo etekinak eragiketaren printzipalari pilatu arren. Dibidenduak, berriz, haiek banatzeko akordioan ezarritako datan izango dira galdagarriak, edo, data hori zehaztu ez bada, banaketa erabakitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

2. Finantza-aktiboen eskualdaketa, amortizazio edo itzulketatik datozen etekinen kasuan, eragiketa formalizatzen den unean sortuko da atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra.
3. Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako errenten kasuan, eragiketa formalizatzen den unean sortuko da atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra, kobratzeko itundutako baldintzak edozein direla ere.

56. artikulua. Atxikipenaren eta konturako sarreraren portzentajea.

Atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea hauxe izango da:

- a) Oro har, %19.
- b) Irudiaren ustiapenerako eskubidea lagatzetik edo irudia erabiltzeko onarpen edo baimenetik datozen errenten kasuan, %24 izango da.
- c) Hiri-higiezinaren errentamendu edo azpierrementamenduen kasuan, %19 izango da.

- d) Inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzan duten akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzearen ondorioz lortutako ondare-irabazien kasuan, %19 izango da.
- e) Zenbatekoa dela-eta loteria eta apustu jakin batzuetako sarien gaineko karga bereziari lotuta dauden eta, beraz, salbuetsita ez dauden loteria eta apustuaren sarien kasuan, %20 izango da (karga berezi hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko hamazortzigarren xedapen gehigarrian arautzen da). Kasu horretan, lotuta eta salbuetsi gabe dagoen sariaren zenbatekoaren gainean aplikatuko da atxikipena, xedapen horretan ezarritakoaren arabera.

57. artikulua. Atxikipenaren eta konturako sarreraren zenbatekoa.

Atxikipenaren eta konturako sarreraren zenbatekoa zehazteko, aurreko artikuluan aipatzen den portzentajea aplikatuko zaio kalkulu-oinarriari.

58. artikulua. Atxikitzailearen eta konturako sarrera egin behar duenaren betebeharrak.

1. Atxikitzaileak eta konturako sarrera egin behar duenak, apirileko, uztaileko, urriko eta urtarrileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan, aurre-aurreko hiruhileko naturalean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoen aitortpena aurkeztu behar diote Zerga Administrazioaren organo eskudunari, eta zenbateko horiek Bizkaiko Foru Aldundian sartu behar dituzte.

Hala ere, aurreko lerroaldean aipatzen diren aitortpena eta sarrera -aurre-aurreko hilean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoei dagozkienak, alegia- hil bakoitzeko lehenengo hogeita bost egun naturaletan egin behar dira, baldin eta konturako sarrera egin behar duenak edo atxikitzaileak 1992ko abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuko 71. artikuluko 3. paragrafoko 1. zerbakian eta 1.bis zerbakian aipatutako inguruabarrak betetzen badituzte. Salbuespen gisa, uztaileko dagokion aitortpena eta sarrera abuztuan eta iraileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan zehar egingo da.

Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak aitortpen negatiboa aurkeztuko du, baldin eta atxikipenaren eta konturako sarreraren menpeko errentak ordaindu arren ez bada inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik egin, ordaindutako errenten zenbatekoa dela eta. Ezingo da aitortpen negatiborik aurkeztu baldin eta aitortpen-epean zehar ez bada ordaindu atxikipenaren eta konturako sarreraren menpeko errentarik.

2. Atxikitzaileak edo konturako sarrera egin behar duenak urtean egindako atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztu behar du hurrengo urteko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean.

Halaber, laburpena telematikoki edo ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezten bada, epe berean aurkeztu beharko da.

Laburpen horretan, atxikitzailearen edo konturako sarrera egin behar duenaren identifikazio-datuez gainera hartzaileen izen zerrenda egon dadin galdatu ahal izango da, eta zerrenda horrek honako datu hauek izango ditu:

- a) Entitatearen izena.
- b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Lortutako errenta, eta adierazi behar da zein den kontzeptu bakoitzaren identifikazioa, deskripzioa eta izaera, bai eta errenta horiek zer ekitalditan sortu diren ere.
- d) Aplikatu den atxikipena edo egin den konturako sarrera.

Aurreko lerroaldeetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte Espainiako lurraldean egoiliarren diren edo Espainiako lurraldean ordezkariak duten entitateek, baldin

eta besteren kontura atxikipenaren peko errentak ordaintzen badituzte edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo haien gordailuzainak badira.

3. Atxikitzailleak edo konturako sarrera egin behar duenak kontura egindako sarreraren eta atxikipenen ziurtagiria eman behar dio zergadunari, baita zergadunari dagozkion gainerako datuena ere, baldin eta datuok aurreko zenbakian aipatzen den urteko laburpenean sartu behar badira .

Ziurtagiri hori zergadunaren esku jarri behar da, zerga honen aitortpena aurkezteko epea hasi baino lehen.

Aurreko lerroaldeetan ezarritako betebeharrak horietan bete beharko dituzte Espainiako lurraldean egoiliarak diren edo Espainiako lurraldean ordezkariak duten entitateek, baldin eta besteren kontura atxikipenaren peko errentak ordaintzen badituzte edo baloreen errenten kobrantza kudeatzen badute edo haien gordailuzainak badira.

4. Ordaintzaileek, errentak ordaintzen dituzten unean, egin dieten atxikipena edo konturako sarrera jakinarazi behar diete zergadunari, eta aplikatu dieten portzentajea adierazi.
5. Artikulu honetan aipatutako aitortpenak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak errenta mota bakoitzerako ezartzen dituen ereduaren, eran eta lekuan egingo dira. Era berean, foru diputatuak zehaztu ahal izango du aurreko 2. zenbakian jasotzen diren datuetatik zein sartu behar diren aitortpenetan. Atxikitzailleak edo konturako sarrera egin behar duenak, bestalde, hari eragiten dioten datu guztiak jaso behar ditu aitortpenetan.
6. Erregelamendu honetako 52 artikuluko 6. zenbakiko 4. puntuan aipatzen den konturako sarreraren edo ordaintzearen aitortpena Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen eran, lekuan eta epean egin behar da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Arauetako aipamenak.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-arauegia Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen 1997ko ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuari buruz jasotako aipamen oro erregelamendu honetako manuei buruzkoa dela ulertuko da.

Bigarrena. Ikertzaileek Gizarte Segurantzako kotizazioetan dituzten hoberiak.

1. Ikertzaileek Gizarte Segurantzako kotizazioetan duten hoberia (Ikertzaileen Gizarte Segurantzarako kotizazioetako hoberiei buruzko 2014ko ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretuan arautua) bateragarria izango da ikerketa- eta garapen-jarduerak zein berrikuntza teknologikokoak direla-eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 62. eta 63. artikuluetan ezarritako kerkarien erregimenaren aplikazioarekin, mikroenpresen zein enpresa txiki eta ertainen kasuan.
2. Gainerako enpresa edo entitateen kasuan ere, 2014ko ekainaren 13ko 475/2014 Errege Dekretuan araututako hoberia bateragarria izango da aipatutako kerkarien erregimenarekin, baina ikertzaile berari aplikatzen ez bazaio. Halakoetan, enpresek aukera bi dituzte: batetik, hoberia aplikatzea Gizarte Segurantzako kotizazioan, errege dekretu horren 2. artikuluan aipatzen diren langileei dagokienez; bestetik, kerkaria aplikatzea langileok parte hartzen duten proiektuen ondoriozko kostuak direla-eta kerkari bat aplikatzeko aukera erabili ahal izango dute, baldin eta proiektu horietan Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 62. eta 63. artikuluetan jasotzen diren jarduerak egiten badituzte.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat, enpresa berarentzat bateragarria izango da, proiektu berean, ikertzaile batzuen kasuan Gizarte Segurantzako kotizazioko hoberiak aplikatzea eta beste ikertzaile batzuk direla-eta kerkariak aplikatzea.

3. Zerga Administrazioak eskaturik, hobariak eta kenkariak aplikatzen dituzten entitateek edo enpresek urteko memoria bat aurkeztu beharko dute, egindako jarduerak zein proiektuak eta hobariak ukitutako ikertzaileak jasoko dituen.

Hirugarrena. Administrazioa aurretik lotesteko prozedurak.

1. Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 2. zenbakian eta 61. artikuluko 2. zenbakian aurreikusten diren kasuetan, manu horietan aipatzen den Administrazioa aurretik lotesteko prozedura 2005eko ekainaren 21eko 101/2005 Foru Dekretuko hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera izapidetuko da (foru dekretu horren bidez zergei buruzko kontsulta idatzien eta zerga-ordainketako aurretiazko proposamenen prozedurak eta itzurpenaren aurkako klausula garatzen dira).
2. Administrazioa aurretik lotesteko prozedura hasteko eskabidean honako hauek jaso behar dira, Zergari buruzko Foru Arauko 53. artikuluko 5. zenbakian aurreikusten diren kasuetan:
 - a) Ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia zuzkitzeko erabili den mozkina sortu den zergaldiko emaitza aplikatzeko proposamena.
 - b) Mozkina sortu den zergaldiko zerga-oinarriaren kuantifikazioa.
 - c) Entitateak zerga-ondorioetarako duen ondare garbiaren azalpen zehatza.
 - d) Ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba bereziaren aurreko lau ekitaldietako azalpena eta mugimenduak.
 - e) Ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezirako zuzkidura erabili nahi den entitateetako partaidetzari buruzko azalpen zehatza.
 - f) Azalpen-memoria bat, non jasoko den partaidetza eskuratu nahi zaion entitateak zer enpresa-proiektu garrantzitsu egiten dituen; halako proiektuek jarduera, produktu edo merkatu berrien garapena, lehendik daudenak handitu edo finkatzea edo lanpostu egonkorrak sortzea eragin behar dute.
 - g) Inbertsio horiek partaidetutako entitatearen zerga-ondorioetarako ondare garbiaren gehikuntza nabarmena ekarriko dutela justifikatzea.
 - h) Partaidetutako entitateak kapitalen merkatuetan sartzeko zailtasunak dituela justifikatzea; egin beharreko inbertsioen tamaina, berritasun edo arriskuak eragindako zailtasunak izan behar dira.
 - i) Zergadunaren eta partaidetutako entitatearen arteko harremana eratuko duten kontratuko elementuei buruzko azalpena, bai eta egingo diren proiektuetan bakoitzak hartuko dituen arriskuei buruzkoa ere.
 - j) Partaidetutako entitateak Zergari buruzko Foru Arauko 13. artikuluko 3. zenbakiko a) eta c) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituela justifikatzea.
 - k) Justifikatzea partaidetza ez zaiola eskuratu Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. zenbakian adierazten denaren arabera pertsona edo entitate lotua den bati.
 - l) Ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko erreserba berezia aplikatuz eskuratuko diren partaidetzak eskuratzeko egutegia eta epeak.
 - m) Inbertsioak eskuraketaren osteko hurrengo bost ekitaldietan izango duen eragin ekonomikoa; zehaztu behar da zer zerga-ondorio aurreikusten diren ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen jarduera sendotzeko proiektua martxan jartzearen ondorioz.
3. Administrazioa aurretik lotesteko prozedura hasteko eskabidean honako hauek jaso behar dira, Zergari buruzko Foru Arauko 61. artikuluko 2. zenbakian aurreikusten diren kasuetan:

- a) Entitatearen aktibo ez-korronteko elementuetan egiten diren inbertsioak kontabilitatean hobekuntza moduan agertzen direla justifikatzea.
- b) Zergari buruzko Foru Arauko 61. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan ezartzen diren betekizunak betetzen direla justifikatzea.
- c) Txosten tekniko bat, non egiaztatzen den inbertsioak garrantzitsuak direla, kopuruagatik edo izaeragatik, eta garrantzi horrek egiturazko aldakuntza edo aldakuntza funtzionalak dakartzala hobekuntza egin zaion aktiboan, eta, aldakuntza horien ondorioz, aktibo hori beste xede batzuetarako erabil daitekeela.
- d) Aktiboak aurretik zeukan xedea aldatzeko beharrezkoak diren administrazio-baimenak.
- e) Inbertsioak egiteko egutegia eta epea, bai eta zehaztea aktibo zein unetatik aurrera egongo den xede berrian funtzionatzeko moduan.

Laugarrena. Higiezineta inbertsio kolektiboko erakundeen araubidea.

1. Higiezineta inbertsio-sozietateek eta higiezineta inbertsio-funtsek Zergari buruzko Foru Arauko 56. artikuluko 4. zenbakian aurreikusitako karga-tasa aplikatu ahal izateko, etxebizitzetan eta ikasleen eta adinekoen egoitzetan egin behar dute euren inbertsioen %50, gutxienez. Bada, ehuneko hori zenbatzean kontuan hartuko dira Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduko 86. artikuluko 1. zenbakiko a) eta b) letretan aurreikusitako inbertsioak (erregelamendu hori 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), baldin eta 86. artikuluko 1. zenbakiko b) letrean ezarritako kasuetan, gainera, erregela hauek betetzen badira:
 - a) Eraikitzen dauden ondasun higiezinak Jabetza Erregistroan inskribatuta egon behar dira.
 - b) Higiezinok etxebizitzak, ikasleen egoitzak edo adinekoen egoitzak izan behar dira.
2. Ikasleen egoitzak hauek dira: ikasleen bizileku izateko berariaz diseinatu edo egokitutako higiezinak, modu ofizialean halakotzat aitortuta badaude.

Halaber, adinekoen egoitzak hauek dira: adinekoen bizileku izateko berariaz diseinatu edo egokitutako higiezinak, horretarako baimen ofiziala dutenak.
3. Xedapen gehigarri honetan azaldutako inbertsio-koefizientea zenbatzeko hau aplikatuko da: Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduko 90. artikuluan ondasun higiezinetan egindako inbertsioaren ehuneko zehazteko ezarritakoa (erregelamendu hori 2012ko uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).
4. Zergari buruzko Foru Arauko 56. artikuluko 4. zenbakian ezarritako karga-tasa behin-behinean aplikatu ahal izango zaie higiezineta inbertsio-sozietate eta inbertsio-funts berriei, honako hau betez gero: bi urtez Zergari buruzko Foru Arauko 78. artikuluko 2. zenbakian galdatzen den inbertsio-ehunekora iritsi behar dira, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen dagokien erregistroan inskribatzen direnetik zenbatuta. Aurrekoa bete ezean, igarotako ekitaldietako Sozietatearen gaineko Zergaren tributazioa ekitaldi bakoitzean indarrean zegoen karga-tasa orokorra aplikatuz kalkulatu da, eta berandutze-interesak ordaindu behar dira.
5. Konpartimentuka ari diren higiezineta inbertsio-sozietate eta inbertsio-funtsen kasuan, xedapen gehigarri honetan ezarritakoa konpartimentu bakoitzeko bete behar da.

Bosgarrena. Balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea aplikatzea.

1. Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatu aurretik horretarako eskabidea egin behar du zergadunak, xedapen gehigarri honetan ezartzen den eran .
2. Eskabidea erregelamendu honetako 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorraren arabera egin behar zaio Zerga Administrazioari, tramitatua izateko, eta eskabide horrek hurrengo zenbakietan ezarritako berezitasunak izango ditu.
3. Araubide hori aplikatzeko eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:
 - a) Entitatea eratzeko eskrituraren kopia.
 - b) Estatutuen kopia eta, hala denean, estatutu horiek aldatzeko proiektua.
 - c) Enpresa nazioartera zabaltzeko proiektua justifikatzen duen memoria bat aurkeztu behar dute; proiektu horrek enpresen internazionalizazioa sustatzen behar du edo jarduera edo merkatu berriei ekitea bultzatu behar du.
 - d) Entitateak dituen partaidetzen zerrenda, bakoitzaren partaidetza-portzentajea eta kotizatuak diren ala ez zehaztuta; partaidetza horien artean entitateak aurreko c) letran aipatzen den proiektuaren bidez eskuratu nahi dituen partaidetzak ere sartu behar dira.
4. Eskabidea aurkeztu behar da, hain zuzen ere, Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubideak ondorioak sortzea nahi den lehenengo zergaldia hasi aurretik.
5. Ogasuneko zuzendari nagusiari dagokio tributazio-araubide hori aplikatzeko baimena ematea.
6. Entitate batek uko egin nahi badio Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeari Zerga Administrazioari jakinarazi beharko dio, uko horrek ondorioak sortzea nahi den zergaldiko lehenengo hiru hilabeteetan.

Seigarrena. Balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea ezeztatzea.

Abenduaren 20ko 178/2016 Foru Dekretuko (abenduaren 30eko BAO) xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, xedapen gehigarri honetan ezarritako prozedura berdin aplikatuko da Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren hamabigarren xedapen iragankorrean aipatzen den araubidea ezeztatzeko ere, ZFAOko hogeita bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako kasuetan.

1. Zerga Administrazioak ezeztatu egin ahal izango du Zergei buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko baimena, baldin eta egiaztatzen bada funtsean ez dela bete zergadunak garatu nahi zuen enpresa nazioartera zabaltzeko proiektua, enpresen internazionalizazioa sustatu edo jarduera edo merkatu berriei ekitea bultzatu behar zuena. Hain zuzen ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko hogeita bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ezeztatu dezake Zerga Administrazioak aurreko baimen hori.
2. Zergei buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko baimena eman zaion zergapeko bati zergen kudeaketari buruzko edo ikuskapenerako egiten zaion prozedura batean agerian jarritako arrazoizko zantzuek pentsarazten badute ez direla bete -aurreko zenbakian ezarritakoarekin bat- baimena emateko ezarri ziren baldintzak, bada, orduan, txosten bat emango da. Eta txosten horretan jasoko da, hain zuzen ere, zer elementu erabili diren ez-betetzea frogatzeko eta zein egunetik aurrekusten den izango lituzkeela ondorioak araubide berezia ezeztatzeko erabakiak.

Administrazio-espeditentea ikusita, Ogasuneko zuzendari nagusiak baimena ezeztatzeko prozedura hasteko erabakia hartuko du, hala badagokio, eta horretarako eskuduna den

zuzendariordeari aginduko dio prozeduraren instrukzioa egitea. Zuzendariordeak, bere aldetik, erabaki dezake edo instrukzioko egintzak berak egitea, edo instrukzio hori bere menpeko funtzionario bati eskuordetzea.

3. Aurreko zenbakian aipatutako erabakia zergadunari jakinaraziko zaio, emandako txostenarekin batera, eta hamabost egun balioduneko epea emango zaio bere eskubideen alde egokitzat jotzen dituen agiri eta alegazioak aurkez ditzan.

Gainera, egokitzat jotzen diren instrukzio-egintza guztiak egin ahal izango dira, eta zergapekoak ezin izan badu haien gaineko alegaziorik egin, prozedura ebazteko proposamena egin aurretik, espedientea ikustera emango zaio eta alegazioak aurkezteko hamar egun balioduneko beste epe bat ere emango zaio.

4. Instrukzioa amaituta eta espedientean jasota dauden elementu guztiak ikusita, zuzendariorde eskudunak prozedura ebazteko proposamena egingo dio Ogasuneko zuzendari nagusiari, Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako Zuzendariordetzaren bitartez, eta proposamen horretan, gutxienez, honako hauek zehaztu behar dira:
 - a) Ea ezeztatu egin behar den ala ez Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeko eman zen baimena.
 - b) Espedientean agerian jarritako egiteko zer elementuk justifikatzen duten egindako ebazpen-proposamena.
 - c) Ezezteko erabakia proposatzen bada, zehaztu behar da ezeztatzeak zer egunetik sortu behar dituen ondorioak. Egun hori prozedura hasi zen egunaren aurreko egun bat izan daiteke, baina, nahitaez, araubide bereziaz gozatzeko ezarritako baldintzak ez-betetzeari buruzko ebidentziak dauden egunetik aurrerako egun bat izan behar da, eta horretarako kontuan hartu behar da beti Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauko hogeita bosgarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldean ezarritakoa.
5. Ogasuneko zuzendari nagusiak, administrazio-espedientea ikusita, ebazpena emango du, eta erabakiko du baimena ezeztatzea edo prozedura artxibatzea. Ebazpena edozein dela ere, haren edukiaren berri eman behar zaio zergadunari.

Zazpigarrena. Atxikipenaren eta konturako sarreraren portzentajea 2015ean.

1. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra 2015eko uztailaren 12a baino lehen sortu bada, atxikipena edo konturako sarrera egiteko ez da aplikatuko erregelamendu honetako 56. artikuluko a) letran ezarritako portzentajea, alegia, %19a, %20 baizik. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra egun horretatik aurrera sortu bada, aldiz, %19,5 aplikatuko da atxikipena edo konturako sarrera egiteko.
2. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra 2015eko abuztuaren 1a baino lehen sortu bada, atxikipena edo konturako sarrera egiteko ez da aplikatuko erregelamendu honetako 56. artikuluko c) eta d) letretan ezarritako portzentajea, alegia, %19a, %20 baizik. Atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharra egun horretatik aurrera sortu bada, aldiz, %19,5 aplikatuko da atxikipena edo konturako sarrera egiteko.

Zortzigarrena. Emaitzaren aplikazioari dagozkion zuzenketak.

Zergari buruzko Foru Arauko 52. artikuluko 1. zenbakiko bigarren paragrafoan eta 53. artikuluko 1. zenbakiko paragrafoan ezarritako mugak kalkulatzeko, kontuan hartuko da emaitzaren aplikazioari dagozkion zuzenketak - foru arau horretako IV. tituluko V kapituluan ezarritakoak - aplikatu aurreko zerga-oinarriaren zenbatekoa.

Bederatzigarrena. Kultura sustatzeko pizgarriak.

1. Zergaren Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatzeko ezinbestekoa da ondoko baldintza hauek betetzea:

- a) Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren ziurtagiri bi lortu behar dira: batetik, produkzioaren nazionalitateziurtagiria; bestetik, produkzioaren edukia kulturala dela, egoera kulturalarekin lotuta dagoela edo Espainiako lurraldean ikusgarri dauden obra zinematografikoen kultura askotarikotasunerako ekarpena dela adierazten duen ziurtagiria.
 - b) Produkzioaren kopia bat, egin berria eta inolako akatsik ez daukana, utzi behar da Fimoteca Españolan edo dena delako autonomia erkidegoak modu ofizialean onartutako zinematekan, urriaren 19ko CUL/2834/2009 Agindua ezarri den bezala (horren bidez hainbat arau ezarri dira errege dekretu hau aplikatzeko: 2062/2008 Errege Dekretua, abenduaren 12koa, Zinemari buruzko abenduaren 28ko 55/2007 Legea garatu duena filmen kostua eta ekoizlearen inbertsioa onartzea, estatu-laguntzak arautzen dituzten oinarriak ezartzea eta Enpresa Zinematografikoen eta Ikus-entzunezkoen Arloko Enpresen Erregistro Administrazioaren egitura direla eta.
2. Zergaren Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatzeko, ondoko ikusentzunezko obrak zailtzat hartuko dira:
- a) Film laburrak.
 - b) Zuzendarien lehen bi lanak.
 - c) Jatorrizko bertsio bakarra euskarazkoa den lanak.
 - d) Aurrekontu urriko lanak, hain zuzen ere ekoizpen-kostua 500.000 eurotik gorakoa ez dutenak.
 - e) Gaia dela eta edo ekoizpenaren inguruko konturen batengatik merkaturatzen gaitz duten lanak.

Letra honetako kasuetan zergadunak frogatu beharko du lanak merkaturatzeko eragozpenak dituela. Lana zailtzat jotzeko eskatu beharko dio Zerga Administrazioari kenkaria aplikatzeko eskubidea egiaztatzen duen lehen zergaldia amaitu baino lehen.

- 3. Zergadunak ondokoak aurkeztu beharko ditu: batetik, Zergaren autolikidazioa, Zergaren Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian ezarritako kenkariari heltzen diola adierazten duena; bestetik, lana egiteko lortutako beste laguntza edo diru-laguntza publiko guztien zerranda, aurrean aipatutako idatzzatian gehieneko ekarpenaz ezarritakoa betetzen denez zehazteko.
- 4. Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 94. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Zergaren Foru Arauko hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatian araututako kenkaria aplikatzeko eskubidea egiaztatzen duten zergadunak ados egongo dira kenkariaren datuen berri ematearekin, estatuak obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen arloko beste produkzio batzuetarako ematen dituzten laguntzei buruz Europako Batzordeak emandako komunikazioko 52. idatz-zatiko 7. zenbakian ezarritakoarekin bat etorriz (2013/C 332/01), Batzordearen 2014/C 198/02 komunikazioak eragindako aldaketaren arabera (komunikazio honen bidez Batzordeak Europar Batasunaren gidalerro hauei buruz emandako komunikazioak aldatu dira: banda zabala azkar hedatzeko estatu-laguntzei buruzko arauak aplikatzeko gidalerroak; eskualde-xedea duten 2014-2020 aldiko estatu-laguntzei eta obra zinematografikoetarako eta ikus-entzunezkoen arloko beste produkzio batzuetarako estatuak ematen dituzten laguntzei buruzko gidalerroak, arriskua finantzatzeko estatuak ematen dituzten laguntzei buruzko gidalerroak eta estatuak aireportuei eta hegazkin-konpainiei ematen dizkieten laguntzei buruzko gidalerroak).

Horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako komunikazioan ezartzen den informazioa argitaratuko du eta argitaratu ere bertan eskatzen den bezala.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Mikroenpresen baterako amortizazioa.

Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluko 3. zenbakian ezarritako aplikatzea aukeratzen duten mikroenpresek baterako amortizazioa egin beharko dute beren balantzeetan jasota dituzten baterako amortizazioa egiteko moduko ondare-elementu guztiekin.

Nolanahi ere, baterako amortizazioak ez die eragingo aukera horri erabili aurretik amortizatutako ondare-elementuei, baldin eta elementuotan hauek aplikatu baditu: batetik, amortizatzeko askatasuna, Zergari buruzko Foru Arauko hamaseigarren xedapen iragankorrean jasotzen dena; bestetik, amortizazio azeleratua, Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluko 2. zenbakian edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 50. artikuluan jasotzen dena, eta, azkenik, finantza-errentamenduko kontratuetako kuoten kenkaria, Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluan edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 116. artikuluan jasotzen dena. Izan ere, ondare-elementu horien guztien kasuan aurreko amortizazio-modu berari eutsiko zaio, hariak eta elementu horiek guztiz amortizatu arte.

Bigarrena. Dokumentazio-betebeharretatik salbuestea ondasun higiezinaren errentamenduan, azpierrantamenduan edo haiek erabili eta lupertzeko eskubide errealean eraketa edo lagapenean.

Aurretik formalizaturik eta 2010eko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden kontratuei erregelamendu honetako 19. artikuluan ezartzen dena aplikatzeko, manu horretan zehazten diren erregelak aplikatuko dira, baina higiezinaren balioespenerako erreferentziazat 2010eko urtarrilaren 1a hartuko da, bost urteko lehen aldirako.

Hirugarrena. Balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea.

1. Erregelamendu honetako bosgarren xedapen gehigarriko 6. zenbakian ezarritakoa gorabehera, Zergari buruzko Foru Arauko hamahirugarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian aipatzen diren zergadunek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehenengo zergaldiko lehenengo lau hilabeteetan aurkeztu behar dute balore jakin batzuk dauzkaten entitateen araubidea aplikatzeari uko egiteko idazkia.
2. 2014ko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako azken zergaldira arte Sozietateen gaineko Zergako Atzerriko baloreak dauzkaten entitateen araubide bereziko erregelen arabera tributatu duten zergadunek Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeari uko egiten ez badiote, arau bereko hamahirugarren xedapen iragankorreko 1. zenbakian ezarritakoaren arabera, orduan xedapen gehigarri horretan ezarritakoa aplikatuko dute 2014ko urtarrilaren 1aren ondoren hasten diren ondoz ondoko bosgarren urteetan.

Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeari uko egin nahi badiote, erregelamendu honetako bosgarren xedapen gehigarriko 6. zenbakian ezarritakoaren arabera egin behar dute.

3. Aurreko 1. zenbakian aipatzen diren zergadunek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehenengo zergaldian utziko diote Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea aplikatzeari.

Nolanahi ere, hurrengo zergaldietan xedapen gehigarri horretan ezarritako araubidea aplikatzen jarraitu nahi badute, horretarako eskabidea aurkeztu beharko dute, Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarriko 1. zenbakian eta erregelamendu honetako bosgarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzetan, Zergari buruzko Foru Arauko hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako araubide iragankorra aplikatu behar den azken zergaldia amaitu aurreko azken sei hilabeteetan.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren manuetan zehazten den baimena jaso eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergaldia hasi ondoren, zenbaki honetan aipatzen diren zergadunei osorik aplikatu beharko zaie Zergari buruzko Foru Arauko hamalagarren xedapen gehigarrian ezarritako araubidea, xedapen horretako 8. zenbakia barne.

Laugarrena. Enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa eta karga-tasen murrizketa.

Zergari buruzko foru-arauaren 51. artikuluko 3. zenbakian xedatutakoari lotuta, hau ez da ondare garbiaren murrizketa izango ondorio fiskaletarako: entitateari aplikatzekoa den kargataza murriztearen ondorioz zerga geroratuen aktiboen zenbaketaren aldaketak eskusiboki sortutakoa baldin eta murrizketa hori bada zergari buruzko foru-arauaren ondorioa.